



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko abuztuaren 4a

55 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Andosilla herriaren zeharbidearen obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Zirkulatzeko aurreikusiriko baimen bereziko tarifa berriei buruz eta horiek nekazaritzako ibilgailu eta makinetan izanen duten eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Minusbaliatuen Programari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (4. or.).

F Sails:
GALDERAK

Andosilla herriaren zeharbidearen obrei buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Andosilla herriaren zeharbidearen obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak, Nafarroako Demokraten Elkargunea taldeko Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Andosilla herriko zeharbidea konpontzeko proiektuaren bukaerarako datari buruz egindako galderaren ondoko erantzuna igortzen dizu:

1.- Nafarroako Gobernuak Andosillako Udalarik eman zion hitza beteko al du, alegia, aipatu herriko zeharbidea konpontzeko proiektua bukatu izatea herriko jaiak 1997ko irailean hasi baino lehen?

Maiatzaren 3ko 1276/1996 Foru Aginduaren bidez baimena eman zitzaion Andosillako Udalarik herriko zeharbidea hobetzeko proiektua enkargatu zezan.

1996. urtearen bukaeran, proiektu hori aurkeztu zen Nafarroako Hegoaldea Zaintzeko Bulegoan, eta ohartarazi zen aurrekontu sail batzuk falta zirela, esate baterako Segurtasun eta Higieneari buruzkoa. Hori dela eta proiektua itzuli zen zuzendu zitzaen.

Gaur egun, Andosillako Udalak ez du proiektua itzuli onesteko.

Era berean, ohartarazi behar da aipatu zeharbideko sareen berritzea 97/99 hirurtekorako Toki Azpiegituretarako Plan Partzialean hornidura eta saneamenduko sare lokalen programaren erreserba bezala jasota dagoela. Dagokion kontusaila 37.108.000 pezetakoa da 1999 urterako.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Zirkulatzeko aurreikusiriko baimen berezirako tarifa berriei buruz eta horiek nekazaritzako ibilgailu eta makinetan izanen duten eraginari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak zirkulatzeko aurreikusiriko baimen berezirako tarifa berriei buruz eta horiek nekazaritzako ibilgailu eta makinetan izanen duten eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurreikusiriko baimen berezietarako tarifa berriei buruz eta horiek nekazaritzako ibilgailu eta makinetan izanen duten eraginari buruz egindako galderaren ondoko erantzuna igortzen dizu:

1. Nafarroako Gobernuak balioetsi al du tarifa berriak gure Komunitateko nekazaritza makina eta ibilgailuei ezartzeak izango duen eragina?

Galderaren helburua den aldaturiko tarifak barne hartzen du Zirkulazio Kodeko 220 eta 222 artikuluetan aurreikusitako zirkulaziorako baimen bereziak ematea. Horrek eragina du ibilgailuen gehiegizko neurri guztietan, hau da, luzeran, zabaleran eta altueran. 1996an Garraio Zerbitzuak mota honetako 9.421 baimen izapidatu zituen. Horietatik 1.756 galderaren helburu diren ezaugarrietako ibilgailuak ziren. Hori dela eta, Garraio Zerbitzuak, tarifaren aldaketa sustatzean, orokorrean baloratu zuen aldaketa horrek izanen duen eragina.

2. Garraioaren alorrak azken hamar urteotan izan dituen aldaketak Nafarroako nekazari eta abeltzainek ateratako errenten bilakaerarekin pareka al daitezke?

Garraio Zerbitzuak, alegia, aldaketa proposatu zuenak, ez du datu aski galderari erantzuteko eta ez ditu ezagutzen galderak aipatzen dituen bi sektoreetako errenten konparazioa egiteko behar diren parametroak.

3. Nafarroako Gobernuak aztertu al du nekazaritza ibilgailu eta makinendako zirkulazio baimen bereziak aparteko legedian arautzeko aukera?

Garraio Zerbitzuak ez du aintzat hartu kontu horri buruzko legerik bultzatzea, izan ere horrek garraioetako eskumenen tituluan eta oso esparru mugatuan izanen bailuke tokia, hots, autonomia barreneko garraiorako, erabat Nafarroako Foru Komunitatearen barrenean dabilen garraiorako, hain zuzen ere. Horri dagokionez, dudazkoa, behinik behin, bada gai hori garraioari buruzko legediaren barrenean sartzea, izan ere estatu mailako legedian baimen horiek Zirkulazio Kodearen barrenean daudelako eta haiek aldatzea edo aurreikusitakoaz bestelako baimen bat ezartzea ezinbestez aipatu Zirkulazio Kodearen aldaketa bat bezala planteatu beharko liritekeelako.

4. Bidezko eta egoki litzateke aipatuetako baimen bakarra aztertzea edo ezartzea nekazaritza edo abeltzaintza ustiategi bakoitzeko edo nekazaritza ibilgailu bakoitzeko, garraiatzen duen lanabesa edozein dela ere?

Gaur egun baimena ibilgailuari ematen zaio, aintzat hartu gabe zein lanabes garraiatzen duen, eta era berean, aukera dago baimen hori nekazaritza ustiatagirako eskatzeko edo garraiolarien kasuan enpresarako, inongo mugarik jarri gabe ez bidaiengatik, ez ibilgailuengatik.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 7an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Minusbaliatuen Programari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko maiatzaren 5ean eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Minusbaliatuen Programari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 6a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Minusbaliatuen Programari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Programaren edukia (4. or.).
- II. Helburua (6. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (6. or.).
- IV. Ondorioak eta gomendio orokorrak (7. or.).
- V. Programaren aurrekontu-betetzearen analisia (12. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (12. or.).
 - V.2. Pertsonal-gastuak (12. or.).
 - V.3. Ohiko gastuak ondasun eta zerbitzuetan (14. or.).
 - V.4. Ohiko transferentziak (15. or.).
 - V.5. Inbertsio errealak (23. or.).
 - V.6. Kapital-transferentziak (24. or.).
 - V.7. Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusarrerak (24. or.).
- VI. Programaren eraginkortasunaren analisia (25. or.).

Eranskina: Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Zuzendari-Kudeatzaileak aurkezturiko alegazioak (26. or.).

I. PROGRAMAREN EDUKIA.

“Minusbaliatuak”, 1995erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrerako 923 programa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari esleitu zaio. Haren kudeaketa Administrazio eta Baliabideen Zuzendariordetzaren eta Gizarte Prestazio eta Lankidetzaren Zuzendariordetzaren ardura da, eta bere helburua zera da: kantitate eta kalitatez, baliabide-maila egoki bat lortzea, minusbaliatuari gizarteratzea eta bere potentzialitateak garatzea ahalbidetuko diona, existitzen diren baliabide publiko eta pribatuak koordinatuz.

Helburu hau erdiesteko, programak funtsean honako xede eta ekintza hauek ezartzen ditu:

- Gizarte ekintzaren hobekuntza minusbaliatu fisiko, psikiko eta sensorialen arloan.
 - Minusbaliatuen ahalmenei dagokienez, normalizazioa eta gizarteratzea.
 - Elkarre-mugimendua sustatzea.
 - Erabateko arreta zentro okupazionaletan.
- Ekintzak:
- Zentro berekien kudeaketa.
 - Familia eta partikularrentzako laguntzei buruzko espedienteen izapidetzea.
 - Itunen eta egonaldi itunduen kontrola eta jarraipena.

Programak jarraian azaltzen dugun adierazle-multzoko bat dauka erantsita:

Prestazioak	1995erako aurreikuspena	
	Eskatuak	Emanak
LISMI pentsioa	2.300	%100
Minusbaliatuentzako aparteko prestazioak	270	%100
Tratamenduak	100	%100
Dirulaguntzak besteren zentroetan egindako egonaldiengatik	57	%85
Minusbaliatuen mugikortasunerako laguntza	97	%90
Etkez etxeko arretarako laguntzak	285	%100
San José	5	%100

Itunak	1995erako aurreikuspena	
	Itunpeko plazak	Okupazio indizea
Agedna, S.L..	103	%100
Aspace	146	%98
Elkarkide, S.L..	30	%100
Gesna, S.A. - C. Infanta Elena	82	%99
Prosna, S.A.	70	%84
Enpresa berria (Eseleipena)	96	%99
SOS Leyre, S.L. "La Atalaya"	48	%88
<hr/>		
Prestazioak	1994	1995erako aurreikuspena
Elkarte eta entiteentzako dirulaguntzak	20	20
<hr/>		
Prestazioak	1994	1995eko aurreik. Onuradunak
Tasubinsa	383	436

Programak dituen giza baliabideak (132 pertsona) jarraian zerrendatzen dira, zentroa:

San José zentroa:

- Zuzendari bat Zerbitzu Bereziako egoeran.
- Administratzaile bat.
- Psikopedagogo bat.
- O.L.T. bat.
- 45 zaintzaile.
- 21 asteburu-zaintzaile.
- Hiru sukaldari.
- Hiru langile.
- 12 zerbitzari.
- Bi sukalde-laguntzaile.
- Bi garbitzaile.

- Menpeko bat.
- Ordenantza bat.
- Fisioterapeuta O.L.T. postu bete gabe bat.
- Zaintzaile-postu bete gabe bat.
- Asteburu-zaintzaile bi postu bete gabe.
- Lanaldi partzialeko sei garbitzaile-postu bete gabe, lehen zerbitzariak.
- Lau zerbitzari-postu bete gabe.
- Gobernariorde bat.
- Administrazio-laguntzaile bat.
- Zerbitzu Orokorretan bi postu bete gabe.

Zentro honetakoak, guztira: 111

Minusbaliatuen Oinarri Zentroa:

- Mediku bergaitzaile zuzendari bat.
- Bi Mediku orokor.
- Hiru Psikologo.
- Fisioterapeuta bat.
- Hiru Psikomotrizista.
- Bi Logopeda.
- Monitore okupazional bat.
- Hiru Gizarte Laguntzaile.
- Administrazio Ofizial bat.
- Bi Administrazio Laguntzaile.
- Bi Ordenantza.

Zentro honetakoak, guztira: 21

Guztira: 132

Programari esleitzen zaizkion finantza-baliabideak 3.274 milioioak dira gastuetan, eta programak 33 milioioko dirusarrerak sortzea aurreikusten da, honela xehatuak:

Laburpena, kapitulu ekonomikoa

GASTUAK		DIRUSARRERAK	
Kontzeptua	Milaka Pezeta	Kontzeptua	Milaka Pezeta
Pertsonal-gastuak	338.502	Tasak, prezio publikoak eta	33.000
Ohiko gastuak ondasun eta zerbitzuetan	57.737	bestelako dirusarrerak	
Ohiko transferentziak	2.838.155		
Inbertsio errealak	9.700		
Kapital-transferentziak	30.107		
Gastuak, guztira	3.274.201	Dirusarrerak, guztira	33.000

Programaren deskribapenak legedi aplikagarria dakar baita ere, jarraian zerrendatzen duguna:

- Martxoaren 3ko 14/1983 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- Uztailaren 20ko 168/1990 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzuen arloan familia eta banakako-

tzako prestazio eta laguntzei buruzkoa.

- Urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuen arloko itunei buruzkoa.
- Azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa.

- Maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua, azaroaren 13ko 9/1991 Foru Legea garatzen duena.

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordearen Erabakia, 1991ko urtarrilaren 8koa, zerbitzu-emate tarifen araubidea onartzen duena.

- 1970eko maiatzaren 8ko Ministro Agindua, Minusbaliatuentzako prestazioei buruzkoa.

- 283/1984 Errege Dekretua, Minusbaliatuen gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legeko prestazio ekonomikoak finkatzen dituena.

- Martxoaren 20ko 120/1992 Foru Dekretua, urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea garatzen duena, Gizarte Zerbitzuen arloko Itunei buruzkoa.

- Martxoaren 9ko 94/1992 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzu, Kirol eta Gazteri arloko dirulaguntzak arautzen dituena.

- Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Kontseilariaren apirilaren 2ko 134/1992 Foru Agindua, Gizarte Zerbitzuen arloan funtzionamendu, ekipamendu txiki eta jardueren sustapenerako Dirulaguntza-Deialdiaren Oinarriak onartzen dituena.

Laburtuz, minusbaliotasun fisiko, psikiko eta sentzorialak dituzten pertsonen arloan gauzatzen du bere gizarte ekintza programa honek, eta horretarako honako ekinbide hauek daude:

Gizarte Ongizatearen Institutuak honako hauek dauzka:

Zentro Berekiak:

- Oinarri Zentroa, Institutuko 21 pertsonaren ardurapekoa. Hauek minusbaliotasunak kalifikatu eta baloratzen dituzte; honetaz gain, hainbat tratamendu egiten da, eguneko zentroa eta lan-orientabidea kasu.

- San José Zentroa, Institutuko 111 pertsonaren ardurapekoa, barnetegi-araubideko egoitza gisa funtzionatzen duena, minusbaliatu larri eta sakon bezala kalifikaturiko 81 erabiltzailerekin.

Itunak:

Egoitza-plazen beharrak asetzeko, Institutuak itunak dauzka zazpi erakunderekin, guztira 582 plaza eskaintzen dituztenak; hauetatik 378 barne-tegi-eraentzakoak dira, eta 204 kanpokoentzat.

Gainera, onuradunak Nafarroan ordainduko lukeena eta, Komunitatearen barnean plazarik ez baldin badu, Nafarroatik kanpoko zentro batean ordaintzen duenaren arteko diferentzia ordaindu egiten du Institutuak. Laguntza hauek 71 onuradun izan dituzte 1995ean.

Programak bestelako zerbitzu edo ekintzak ditu osagarri. Adibidez:

- LISMI pentsioak; gutxieneko dirusarrerak bermatzeko dirulaguntza bat dira, 1.933 onuradun dituztenak.

- Etxez etxeko laguntzak eta aparteko laguntzak: etxez etxeko laguntzak 173 onuraduni ematen zaizkio, eta protesiak erosi, etxebizitza eta ibilgailua moldatzeko eta abarrerako laguntza apartekoak 150 onuraduni.

- Lantegi okupazional gisa zerbitzua ematen duten elkarteentzako dirulaguntzak; haien artean, bere garrantziagatik Tasubinsa da aipagarri, 383 langile dauzkalarik.

II. HELBURUA.

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen Abenduaren 29ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, haren jarduketa-planak Nafarroako 1995eko Aurrekontu Orokorrei dagokien "Minusbaliatuak" aurrekontu-programaren fiskalizazioa bere barnean hartu du.

Lan hau egitean, Kontuen Ganbarak honako helburu hauek erdietsi nahi ditu:

1goa. Bere epigrafe ekonomiko ezberdinetan programaren aurrekontu-betetzeak egozgarri zaizkion gastu eta dirusarrera guztiak jasotzen dituela egiaztatatu.

2gna. Aurrekontu-programaren betetzeari aplikatu beharreko legedia bete egiten dela egiaztatatu.

3gna. Programaren arduradun diren unitate administratiboek ezarritako barne-kontrolerako sistemak analizatu eta aztertu, beharrezkoa izanik hauek hobetzeko egoki jotzen diren gomendioak proposatuz.

4gna. Programa hori betetzean zer nolako eraginkortasun, eraginkortasun- eta ekonomia-maila lortu den aztertzea.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

III.1. NORAINOKOA.

Aurreko helburuak kontuan izanik, lanak honako edukia du aztergai: hala aplikatutako prozeduren nola 1995erako programaren aurrekontuaren berrikuspena, komenigarri jo diren antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolari buruzko alderdiak aztertu eta baloratu; halaber, aurrekontu horren betetzean lortutako eraginkortasun eta ekonomia-maila ere aztertu da.

Metodologia gisa, Ganbara honek erabili ohi dituen programak aplikatu dira. Programa horiek Ganbararen Auditoretza Gidetan agertzen dira, eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organoen Koordinaziorako Batzordeak onartutako Sektore Publikoaren Auditoretzarako Arau eta Printzipioen arabera daude garatuak.

III.2. MUGAK.

Programa betetzean lortutako eraginkortasun eta ekonomia-maila aztertzean datzan helburu hori erdiestea honako muga hauek baldintzatzen dute:

a) Programaren egituratik eratorriak:

Helburu eta adierazleak gaizki definitu eta koantifikatu izana, hala nola hauen egokitasun-eta betetze-mailaren jarraipen sistematikorik eza.

b) Institutuaren antolaketatik eratorriak:

Programako ekintza ezberdinen gaur egungo arduradunak eta departamentuko antolaketa-egitura ez dira 1995ean, hau da, gure aztergai den ekitaldian, zeuden berak, eta honek zaildu egin du informazioa lortzea.

Zelaiko lana 1996ko abenduan burutu da. Honako hauek osaturiko taldeak egin du: bi auditoretza-teknikari, hezkuntza-teknikari batek eta auditore batek, beti ere Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzak eskura izan dutelarik.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko langileei lan hau burutzeko eskaini diguten lankidetzak eskertu nahi diegu.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Jarraian, aurrekontuko epigrafe ekonomiko bakoitzean egindako lanetik ateratako hausnarketa eta ondorio orokorrak agertzen dira, dagozkien gomendioak gehitu zaizkielarik, egoki izan denean.

IV.1. IRUZKIN OROKORRAK AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZ (TXOSTENENKO V.1. ATALA).

Programa aitorturiko obligazioen zenbatekoa guztira 3.062 milioikoa da, kontusailik garrantzitsuena ohiko transferentziak izanik, 2.338 milioikoa, programako gastuen %87a izatera iritsirik.

Programak dirusarrera bezala jasotzen ditu 54,6 milioi, San José Zentroko egoiliarrek ordainduriko tarifei dagozkienak, hain zuzen.

IV.2. PERTSONAL-GASTUAK (TXOSTENENKO V.2. ATALA).

Programak 303,5 milioi pezeta jasotzen du pertsonal-gastutzat, zentro berekietako pertsonal finkoari dagozkionak, hau da, San José Zentroari eta Minusbaliotasunen Baloraziorako Zentroari.

Arlo honetan eginiko berrikuspenaren ondorioak hauek dira:

- Programak ez du jasotzen aldi baterako pertsonalaren gasturik, ezta pertsonal guztiaren ordainsari aldakorrik ere, eta ezta programa honetan diharduten bulego orokorretako pertsonal finkorik ere.

- Plantilan eta zentro berekietako pertsonalaren aldaketetan oinarrituriko kalkulua baino 19,8 milioi pezeta gutxiagokoa da programan jasotzen den egindako gastua, programei eginiko pertsonal-egozpenean gertaturiko errakuntzak direla eta, nagusiki.

- Pertsonalaren gehiegizko mugikortasunak eta beronek dakarren behin-behinekotasun tentsazioak kudeaketa zaildu egiten du. Mugikortasun hau hiru gobernu-aldaketak sortu dute, 1991tik 1996ra bitartean, azken biak urtebete baino epe laburragoan.

Pertsonalaren mugikortasun hau mugapen bat izan da gure lanarentzat, ez antolaketa-egitura ez egungo arduradunak ez direlako 1995ean, alegia, gure aztergai den ekitaldian, zeudenak.

Arlo honi buruzko ondorioetan oinarrituz, zera gomendatzen dugu:

Nomina aldizka egiaztatu eta adostea, ekitaldiaren hasieran onarturiko plantila organikoaren arabera, eta ekitaldian zehar plantila hori aldatzen joatea, horrela programari egozten zaizkion pertsonal-gastuak behar bezala erregistratuak daudela ziurtatu ahal izateko.

Programari dagozkion pertsonal-gastu guztiak programan bertan jasotzea, ondorioz aldi baterako pertsonalaren gastuak zein apartekoak, jaieguna, goardiak eta gauekotasuna bezalako ordainsari aldakorrek aplikatuz eta programa honetara zuzentzen diren bulego orokorretako pertsonal finkoaren gastuak egotziz.

Hainbat lanposturen egonkortasun eta espezializazioa sustatzea. Honek administrazioaren eginkizun-mota honen kudeaketa egokia erraztu egingo du, minusbaliatuena bezalako arlo batean, zeinaren beharra eta eragin soziala garrantzitsuak diren.

IV.3. OHIKO GASTUAK ONDASUN ETA ZERBITZUETAN (TXOSTENEN V.3. ATALA).

Gastu hauek 58,4 milioioak dira, alegia, programako gastu guztien %2a besterik ez. Kontusail honek zentro berekietako gastuak bakarrik jasotzen ditu.

Kontusailik garrantzitsuena San José Zentroak egiten dituen elikagai-erosketei dagokiena da, eta beraz aztertu ondoren honako ondorioetara heldu gara:

- Eskakerak ahoz egiten dira. Biltegian ez dago izakin-kontrolik.

- Erosketak hornitzaile tradizionaleri egiten zaizkie, eta hauek beren prezioak bere kabuz gaurkotzen dituzte, eskaintza alternatiborik eskatzen deneko konstantziarik ez dugula.

- Institutu osoko elikagai-erosketa bateratzeko aukera, kostuaren murrizpena ekarriko lukeena, ez da erabili, gaur egun produktu ez galkorren erosketak bateratzeko aukera aztertzen ari diren arren.

Atalaren gainontzekoari dagokionez, gastuen zama behar bezala banatua dagoela ondorioztatzen dugu egindako analititik; hala eta guztiz ere, errakuntza hauek agertu dira:

- Aurreko ekitaldiari dagozkion gastuak egotzi izana.

- Baimen egokirik gabeko erosketak.

- Egiaztagiriko egokirik gabeko konponketak.

Burururiko lan eta aipaturiko ondorioen ildotik, zera gomendatzen dugu:

San José Zentroko elikagai-biltegian izakinen kontrolerako sistema bat sortzea, eta honako hauek galdutako dituen erosketa-prozedura bat idatziz ezartzea: eskaerak egitea, emate-agiriak eta hauek fakturekin erkatzea eta hornitzaile ezberdinei prezio-eskaintza alternatiboak aldizka eskatzea, erosketak prezio lehiakorretan egiten direla ziurtatzeko.

Institutu osoko elikagai-erosketak bateratzeko egokitasuna aztertzea, produktu horien erosketan kostu-murrizketak ekar ditzake eta.

Erosketei buruzko atalaren gainontzekoari dagokionean, zera gomendatzen dugu:

Honakoa galdutzea: erosketa oro pertsonal eskudunak baimendua izan dadila, konponketa txikiak behar bezala jaso ditzatela dokumentu bidez eta gastuak, dagozkion ekitaldiari egotzea.

IV.4. OHIKO TRANSFERENTZIAK (TXOSTENEN V.4. EPIGRAFA).

Programako gastuei buruzko punturik garrantzitsuena, 2.664 milioioak, hau da, gastu guztien %87a. Honela xehatzen da:

	Milioika pezeta
	1995ean bete
Elkarteekiko hitzarmen eta itunak	1.401
Minusbaliatuentzako bekak	8
Familia eta partikularrentzako laguntzak	63
LISMI pentsioak	730
Bestelako elkarreentzako dirulaguntzak	376
Besteren zentroetan egonaldiak	86
Guztira	2.664

IV.4.1. Elkarreentzako hitzarmenak eta itunak (txostenen V.4.1. atala).

Egindako lanetik abiatuz, itunen lege-esparrua, edukia, esleipena, fakturazio-, ordainketa- eta kontabilizazio-prozedurak, kontrola eta 96-1-31ko beren egoera aztertuz, ondorio hauetara heldu gara:

- Administrazioak zazpi erakunderekin dituen itunak heterogeneoak dira, eta behar bezala justifikaturik ez dauden desberdintasun nabarmenak agertzen dituzte beren baldintza-sortetan (moduluaren kostua eta gaurkotzea, zehapen-araubidea, kalteordainak kontratu-deuseztapenagatik). Agedna-rekin dagoen itunak aurreikusitakoak baino haundiagoak diren gastuen konpentsazio-klausula bat dauka, legeak ezarritakoaren aurka.

- Bakarrik Aspace-rekin dagoen itunak da, zentzu hertsian, benetako itun bat, kudeaketa zentro bereki batean egiten duelako, gainerako kasuetan jabetza publikoko zentro batean jarduten baita, horrela zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa-rako kontratu bat izanik.

- Itunen esleipena lehiaketa bidez egiten da, eta Servirecord-ekin izenpetutako azkena izan ezik, bakar batean ere ez da txosten juridiko edo ustiapen-aurreproiekturik erantzen.

- Aspace-rekin dagoen itunean enpresak egotzilarrengandik jasotako tarifak ez dira kontuan edukitzen itunaren hiruhilabeteko ordainketarako, eta berezitasun hau ez da agertzen ituneko baldintza-sortan.

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egin duen itunen kontrola kaskarra izan da, ez baitu galdatu, itunak ordaintzeko, urtero kontabilitate-informazio eta memoriarik bidaltzea, ezta aurreko lauhilabetekoko gastuen xehakapenik,

baldintza-sortek horretarako ahalmena ematen badiote ere. 1995ean, Agedna-k besterik ez ditu bidali urteko kontabilitate-informazioa eta memoria.

- Dagokion tarifa ordaintzeko oinarri den ezgaiaren errenta erreala zehazteko zailtasunak daude. Gainontzekoa Institutuak ordaintzen du, eta legeak xedatzen duenez, onuradunak Institutuaren aldeko zor-aitormen dokumentu bat izenpetu behar du, Institutuak haren izenean ordaintzen duen zenbatekoarekin; hala ere, prozedura hau ez da praktikan burutu.

- Egun, itun-sistemaren aplikazio praktikoak porrot egin du, haien egoeratik ondorioztatzen denez. Hasieran izenpeturiko sei itunetatik, lauk problemak erakutsi dituzte, jadanik konponduak egonik edo konponduak izateko zain administrazioak haietan esku hartu duelarik; honen kausa izan litezkeenak hauek dira:

- Esleipendunen esperientzia falta.

- Laguntza-kalitate egoki bat eta hitzarturiko moduluaren bidez finantza daitekeen kostu baten artean oreka bat aurkitzeko zailtasuna.

- Gaizki diseinaturiko eta idazketa zail eta anbiguoko itunak.

- Institutuaren kontrol eskasa: arazoak garaiz detektatu beharko zituzkeen, konpontzen saiatu ahal izateko. Kontrol akastun hau pertsonal tekniko egokiaren gabeziari leporatu behar zaio nagusiki.

Itun-sistemari buruz agerturiko hausnarketen arabera, zera gomendatzen dugu:

Egungo itun-sistemaren aldaketa sakona, honakoak bermatuko dituzten baldintza-sorta normalizatuak garatzea ahalbidetuko duena: laguntza-kalitate egokia, Institutuak bere gain har dezakeen kostu eta onuradunaren erosahalmenaren araberrako tarifa egokiak. Halaber, beharrezkoa da Administrazioak itunen bideragarritasun ekonomikoa eta laguntza-kalitatea ziurtatuko dituzten kontrolak gauzatzea.

IV.4.2. Minusbaliatuentzako beka (txosteneko V.4.2. atala).

Kontzeptu honetarako zenbatekoa 8,2 milioikoa da, helburua zentroetako arretak minusbaliatuei ekartzen dien gastua arintzea delarik, eta zentro hauei ordaintzen zaie.

Laguntza-mota honi buruz egindako lanaren arabera, honako ondorio hauetara iristen gara:

- Dagoen araudia estatu mailakoa da, transferentziak baino lehenagokoa, eta Nafarroako

Gizarte Ongizatearen Institutuak ez du benetako kontrolik egiten ez onuradunen ezta zentro hartzailearen gain. Azken honek telefono bidez jakinarazten ditu bekaren luzapenerako onuradunen aurreko ekitaldiko kopuruko alta eta bajak.

- Harturiko zenbatekoen artean diferentziak daude zentroen arabera, behar bezala justifikatu gabekoak.

- Beken erabilera eta onuradunarengan duten eragina ez da egiaztatzen.

Azaldutako ondorioen arabera, zera gomendatzen dugu:

Berezko araudi bat era dadila beka-mota hau eskatu ahal izateko baldintzak eta beken zenbatekoak behar bezala eraentzeko eta beren kudeaketa eta kontrolerako prozedura egokiak ezartzeko.

IV.4.3. Familia eta partikularrentzako laguntzak (txosteneko V.4.3. atala).

63,3 milioi pezetako gastu bat osatzen dute, eta hala etxez etxeko laguntza nola aparteko laguntzei dagozkie.

Epigrafe honetan eginiko lanean oinarrituz, jarraingo ondorioetara iristen gara:

- Etxez etxeko arretarako laguntzen kudeaketak eta kontrolak bete egiten dute aplikagarria den araudia.

- Aparteko laguntzen eta tratamendu bereziertarako laguntzen kasuan, ez da existitzen erregulatuko dituen barne araudirik; hortaz, kasu bakoitzean halako erabaki-askatasun batez jarduten da. Bakarrik Aparteko Laguntzetan existitzen da lagundu daitezkeen kontzeptuen zerrenda bat, hala nola gehieneko mugak.

Azaldutako ondorioen arabera, zera gomendatzen dugu:

Aparteko laguntzak eta tratamendu bereziak erregulatuko dituen barne araudi bat sortzea.

IV.4.4. LISMI pentsioak (txosteneko V.4.4. atala).

Kontzeptu honek 729,5 milioiko gastua dauka. Hemen sartzen dira gutxieneko dirusarreraren bermerako dirulaguntza (24.935 pezeta/hilabeteko), hirugarren pertsona baten laguntzarakoa (9.725 pezeta/hilabeteko) eta mugikortasun eta garraio-gasturakoa (5.495 pezeta/hilabeteko).

Epigrafe honetan egindako lanetik abiatuz, ondorioak honako hauek dira:

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez du behar bezala kontrolatzen onuradunek galdaturiko betebeharrak betetzen dituztenik.

- 1995ean guztira 21,5 milioi osatzen dituzten eta egin behar ez ziren ordainketak egon zirela detektatu da. Hauen kobrantza-kudeaketa Gedesaren esku utzi zen; hala ere, enpresa honekin ez dago aldizkako informaziorik, eta gaur egun laguntza hauen arduradunek ez dakite zein zor dauden kobrantza-kudeaketan enpresa honen esku.

Agerturiko ondorioen arabera, zera gomendatzen dugu:

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak beharrezkoak diren kontrolak egin ditzala LISMI laguntzen onuradun guztiak laguntza horietarako baldintza guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko.

Kobrantza-kudeaketarako jardunbide bat eratztea.

Egin behar ez ziren ordainketak kobratzeko ardura duen enpresarekin aldizkako informazio-bide bat sortzea, une bakoitzean kobratzeko dauden kopuruak jakitea ahalbidetuko duena.

IV.4.5. Beste elkarteentzako dirulaguntzak. (txosteneko V.4.5. atala).

Kontzeptu honek 375,7 milioiko gastua du, bertan funtzionamendu eta ekipamendurako eta gizarte-zerbitzuen arloko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak jasotzen direlarik.

Epigrafe honetan eginiko lanetik abiatuz, ondorioak honako hauek dira:

- Eskaera-espeditenteak ez dira behar bezala baloratzen, eta praktikan, aurreko ekitaldiarekiko %5eko gehikuntza duen dirulaguntza bat ematen da, atzerapen nabarmen batekin, gainera (1995eko iraila), eta honek finantza-ziurgabetasun egoerak sor ditzake funtsean dirulaguntza horren menpean dauden elkarteetan.

- Egindako gastuen egiaztagiririk ez da galdatzen.

- Tasubinsa-rentzako dirulaguntzak minusbaliatu eta urte bakoitzeko dagoen urteroko modulu baten arabera ematen dira, Sozietateak igortzen duen okupaturiko pertsonen zerrenda batean oinarrituz. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez du inolako kontrolik egiten pertsona hauen gain.

Aipaturiko ondorioen arabera, zera gomendatzen dugu:

Elkarteentzako dirulaguntzak eskaera-espeditenteen balorazio baten arabera eman daitezela, balorazio hori ekitaldiaren hasieran egin beharko litzatekeelarik. Ondoren, egindako gastuak justifikatzea galdatu beharko litzateke, eta, Tasubinsaren kasuan, aldizkako kontrolak egin, emandako dirulaguntzaren egokitasuna egiaztatzeko.

IV.4.6. Egonaldiak besteren zentroetan.

85,9 milioiko kostua du eta plaza lortu ez dutenei Nafarroan internamenduak edukiko lukeen prezioa eta Komunitatetik kanpoko zentroak kobraturiko zenbatekoaren arteko aldea xamurtzeko Institutuak ematen dien finantziazioa jasotzen du.

Eginiko lanaren arabera, espeditenteek bete egiten dituzte aipaturiko laguntzak arautzen dituen dekretuak ezarritako baldintzak.

IV.5. INBERTSIO ERREALAK (TXOSTENeko V.5. ATALA).

10,9 milioiko kopurua jasotzen du, bere zentroen eta itunpekoen egokitze eta ekipamendu gisa.

Eginiko lanaren arabera, espeditenteak behar bezala izapidetu direlako ondorioa iritsi gara; dena den:

- Bermealdia finkatzeko oinarrizkoa den behin-behineko hartzea ez dago erasota.

- Egokitze eta ekipamendu-lan horiek ez dute aurreikusitako epea bete, fakturetako daten arabera, eta irizpide hau funtsezkoa zen haiek esleitze.

Ondorio horien arabera, zera gomendatzen dugu:

Behin-behineko hartzearen berri ematea, hau oinarrizkoa delarik lanen bermealdiaren hasiera zehazteko eta lanak aurreikusitako epean burutzeko beharrezkoak diren kontrolak egiteko, kontrako kasuan esleipendunari egoki den erantzukizuna galdatuz.

Programak ez ditu jasotzen Departamentuko Zuzendaritza Orokorrek kudeatzen dituen eta Zuzendaritza Orokorreko Programa bati egozten zaizkion inbertsio batzuk eraikinak egiteko, 249,5 milioiko zenbatekoa dutenak 1995ean.

IV.6. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK (TXOSTENeko V.6. ATALA).

Ezinduentzako ibilgailu partikular eta kolektibok erosi eta moldatzeko 25,3 milioiko gastu bat jasotzen du.

Foru Agindu arautzaileak galdaturiko baldintzak bete egiten dituzte espedienteek.

IV.7. TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRERAK (TXOSTENeko V.7. ATALA).

San José Zentroko egoiliarren zerbitzu-emate tarifen bidez bildutako 54,6 milioiko dirusarrera batzuk ditu.

95-6-1erainoko tarifa hileko 224.000 pezetakoa da, eta 271.400ekoa data horretatik aurrera. Hala ere, erabiltzaileek ordaintzen duten benetako kopurua beren hileroko errentaren %90ekoa da.

Egoiliar batek ere ez du tarifa osoa ordaintzen, eta, hala eta guztiz ere, diferentzia horrengatik Gobernuaren alde sorturiko zorraren aitortpena, arauak aurreikusitakoa, ez da behin ere egin.

Dirusarrera-arlo honetan eginiko berrikuspentik abiatuz, honako ondorioetara iristen gara:

- Ez dago koordinazio egokirik ordainagiriak izapidetu eta likidatu eta ordaindugabekoak kontrolatzen dituen zentroa eta horiek kontabilizatu eta kobrantzak kontrolatzeaz arduratzen den departamentuaren artean.

- Ez dago egoiliar bakoitzeko espedienterik, haren errentak eta hauen aldaketak dokumentatuko dituenik.

- Onuradunaren errenta zehazteko prozedura akastuna da, hala Institutuko beste zentroekiko deskoordinazioagatik nola onuradunek edo hauen tutoreek errentak ez aitortzeagatik.

- Zentroko administradoreak egiten du kuoten likidazioa, eta ez dago inongo onespren, berrikuspen edo kontuhartzeri lotua.

- Ordaindugabekoen kontrolerako prozedura egokirik ez dago.

Ondorioen arabera, zera gomendatzen dugu:

Kontabilizazioaz arduratzen den zentroa eta ordaindugabekoak likidatu eta kontrolatzen dituen zentroaren artean koordinaziorako neurri egokiak ezar daitezela.

Egoiliar bakoitzarentzat espediente pertsonal bat sortzea, bertan haren errentei buruzko informazioa aldizka dokumentatu eta gaurkotuta agertuko delarik.

Onetsi eta kontrolatu behar diren ordainagiriaren jaulkipenaren gain berrikuspen-prozeduraren bat ezartzea.

IV.8. ERAGINKORTASUNARI BURUZKO ANALISIA (TXOSTENeko V.8. ATALA).

Programei buruzko lan-mota honen azken helburua zera da: programaren barnean dauden ekintza ezberdinen eraginkortasunari buruz irizpen bat ematea, erdietsiriko helburuak beren kostuekin lotuz. Analisi hauek beste komunitate batzuetako kostuekin eginiko konparazio baten bidez osatzen dira, honela gure komunitatean aurkitutako soluzioen eraginkortasun mailari buruzko ideia bat eduki ahal izan dezagun.

Programa honek egun duen garapen-egoerak eta beste komunitate batzuetako datu homogeneo eta konparagarriak lortzeko zailtasunak helburu hori lortzea eragozten digute; dena den, jarraian aurkezten ditugu akats nagusiak, hauen soluzioak etorkizunean kudeaketaren gardentasun haundia eta minusbaliatuen arlo honetako problemen soluzioan eraginkortasuna ahalbidetuko litzuke larrik.

Programaren aurkezpen eta egitura gure iritiz ez da osoa, zeren eta:

- Finkaturiko helburuek burutu beharreko jarduera islatzen badute ere, oso era orokorrean definitzen dute, ez daude koantifikatuak, ezta aurrekontu-kredituekin erlazionaturik ere.

- Eransten diren adierazleek ez dute zerikusi zuzenik helburuekin, eta administrazio-kudeaketa koantifikatzera mugatzen dira.

- Helburuen betetzearen jarraipen zehatzik ez da egiten, eta ez da urteroko jarduerak eta beren kostuari buruzko oroit-idazkirik egiten.

- Programak ez ditu jasotzen pertsonal eta inbertsio arloan egozgarri zaizkion gastu guztiak.

Gizarte-izaerako helburuen lorpen-maila neurtzeko zailtasuna aitortzen badugu ere, zera gomendatzen dugu:

Institutuak ahalegin bat egin dezala programari helburu zehatz batzuk emateko epe ertain eta luzerako, programako ekintzen eraginkortasun maila determinatu ahal izateko egoki diren adierazleak sortuz. Ekintza horien analisia urteroko memoria batean agertu beharko da, bertan, egingdako lanaren helburu eta kostuak zerrendatuko direlarik.

Baita ere, egoki iruditzen zaigu programaren helburuen artean minusbaliatuen hainbat problemarentzat piskanakako soluzioak jasotzea; gizarteak eskatzen ditu problema hauentzako soluzioak. Hau dela eta, zera gomendatzen dugu:

Programaren helburu kontsideratzea hainbat arazoren soluzioa, ondokoak kasu:

Koordinazio haundiagoa Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren artean, Osasun pazienteak izatetik minusbaliatuak kontsideratuak izatera pasatzen diren eta, beraz, minusbaliatuen programan ematen diren zerbitzuen aldetik berehalako arretaren beharrean dauden pertsona guztiei etengabe informatu, aholkatu eta laguntza emateko.

Oztopo fisiko eta sentsorialeiei buruzko Foru Legea aplikatuz, arkitektura-oztopoen ezabaketa duda-mudarik gabe praktikan jartzea, bide publikoetan eta eraikin publiko zein pribatuetan minusbaliatuen mugikortasuna erraztuko duena.

Minusbaliatuen gizarteratzeari laguntza haundiagoa, populazio normalarenak hirukoizten dituen langabezia-zifrak dituen kolektibo bati lan-merkatuan sar dadin lagunduz.

Laguntza, beka, pentsio eta diruz lagunduriko egonaldi itundueta gauzatzen diren programako ekintza ezberdinen analisisan zehar ikusi dugun bezala, Institutuak kontrol eskasa egiten du onu-

radunaren errenta eta ondasunen gain, hala nola minusbaliatuak bere arreta egokirako behar dituen laguntza publikoen zehazketarako oinarri gisa hartzen diren bere famili-gorabeheren gain.

Programako ekintza ezberdinak arau bidez era egoki batean gara daitezela gomendatzen dugu, Institutuaren kontrol-eginkizuna sendotuz, laguntza publiko guztiak benetan behar dituzten onuradunei ematen zaizkiela ziurtatzeko.

Azkenik, zera adierazi nahi genuke: pertsonalaren espezializazioak, zeinak behar adinako egonkortasuna eduki behar baitu, funtsezko diren hainbat postutan behintzat, epe ertainean programako ekintzen eraginkortasunean eragina edukiko duela.

V. PROGRAMAREN AURREKONTU-BETE-ZTEARI BURUZKO ANALISIA.

V.1. AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

Jarraian, 1995eko ekitaldiko programaren gastu eta dirusarreraren aurrekontu-betetzeari buruzko koadroak aurkezten ditugu.

a) Gastuak (milaka pezetatan):

Gastuak	Hasierako kred.	Bateratua	Aitortua	Betetze % a	%a guzt./g.
Pertsonal-gastuak	338.502	337.336	303.552	89,9	10
Ohiko ondasun-erosk. eta zerb.	57.737	62.437	58.416	93,5	2
Ohiko transferentziak	2.338.155	2.751.455	2.664.041	96,8	87
Inbertsio errealak	9.700	11.700	10.979	93,8	-
Kapital-transferentziak	30.107	30.107	25.333	84	
Guztira	3.274.201	3.193.035	3.062.321	95,9	100

b) Dirusarrerak (milaka pezetatan):

Dirusarrerak	Hasierako kred.	Bateratua	Aitortua	Betetze %a
Tasak eta bestelako dirusarrerak	33.000	33.000	54.615	%165

Dakusagun bezala, aitorturiko obligazioak 3.062 milioioak dira 1995ean, bateraturiko aurrekontuaren %95,9ko betetze-portzentaiarekin, kontusailik garrantzitsuena ohiko transferentziena izanik, baliabideen %87a hartuz. Garrantzi txikiagokoak dira 54,6 milioiko dirusarrera batzuk, tasak eta bestelako dirusarrerak kontsideraturikoak: hemen, betetzea %165ekoa izan da dirusarrera-aurrekontu bateratuarekiko.

Ondoren, gastu eta dirusarreraren aurrekontuko osagaiak banan-banan aztertzen joango gara.

V.2. PERTSONAL-GASTUAK.

V.2.1. Antolaketa-egituraren azkerketa orokorra.

Programaren kudeaketan Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko hiru zuzendariordetzek hartzen dute parte. Honetaz gain, Institutu honek bi organo zuzentzaile ditu, Gobernu Batzordea eta Zuzendaritza, eta organo aholkuemaile bat: Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua.

Hiru zuzendariordetza, bederatzi atal eta hogei bulego edo bulego-mailako unitate administratibotan antolatua dago.

Gainera, programa honetatik kanpo era ezberdineko hamazazpi zentro daude Institutuaren menpean, eta hauen kudeaketa, koordinazioa, gainbegiraketa eta abar Zentro Berekien Atalaren esku daude, baina menpekotasun hierarkikoa arautu gabe daukate.

Egitura hau 596/95 Foru Dekretuak aldatu du, 1996ko urtarrilaren 19tik aurrerako ondorioetarako, gizarte-zerbitzuen jarduera-atal ezberdinen arabera unitate administratiboak berrantolatuz.

Egitura berri hau ez da bulego mailaraino garatua izan, aurreko bulegoak mantendu baldin badira ere, nahiz eta formalki atal berriei loturik ez egon. Zentro Berekien esleipena ere ez da egin.

1991tik 1996ra bitartean hiru Gobernu-aldaketa izan dira, azken biak urtebete baino denbora laburragoan.

Aldaketa politiko hauek Institutuaren egitura organikoan berrantolaketa garrantzitsuak eragin


dituzte, eta burutza gehienetan -baita ataletakoe-tan ere- hala nola, kasu batzutan, bulegoetan, aldaketak.

Gainera, zentroko beste zenbait funtzionariok egiten dituzte maila teknikoko (atalak, bulegoak) arduradunen ordezkapenak, eta, era berean, beste tekniko batek ordezkatu behar ditu hauek beren funtzioetan.

Arduradun-aldaketa hauek ez dituzte ondorioak sortzen izendapen / kargu-uzte datatik aurrera soilik, baizik eta Gobernu-aldaketaren datatik bertatik badago "aldaketaren igurikapena", eta honek iragankortasun sentsazio bat sortzen du, kudeaketa eraginkorraren kaltetan doana.

Hau mugapen bat izan da gure lanarentzat, antolaketa-egitura eta egungo arduradunak ez direlako 1995ean, alegia, gure berrikuspenaren gai den ekitaldian, zeudenak.

Jarraian behin-behineko organigrama bat azalduko dugu, zerbitzuak eta atalak bai baina bulegoak erakutsi gabe, atxikitzeke baitaude.



V.2.2. Pertsonal-gastuen egozpena programari.

Institutuan erabiltzen den irizpidea honako hau da: Programa bakoitzari bere izaeraren arabera dagozkion Zentro Berekiei esleituriko pertsonal finkoa soil-soilik aplikatzea. Beraz, Minusbaliatuentzako aurrekontu-programari San José Zentrorra eta Minusbaliotasunen Baloraziorako Zentrorra esleituriko pertsonal finkoaren (laborala nahiz funtzionarioa) gastuak aplikatzen zaizkio.

95-12-31 datan minusbaliatuen arloko zentro berekietako pertsonala hauxe da:

	Finkoak	Denboraldi baterakoak	Guztira
San José Zentroa	96	28	124
Minusbaliotasunen Baloraziorako Zentroa	20	1	21
Guztira	116	29	145

Pertsonal-gastuen egozpen hau 303,5 milioi pezetakoa da 1995ean, programako gastu-kitapenaren arabera.

Pertsonal-gastuen gainerakoa "Gizarte Ongizatearen Institutu Nazionalaren Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak" programari aplikatzen zaio, hau da:

- Aldi baterako pertsonala.
- Bulego orokorretako pertsonal finkoa (funtzionario eta laborala).
- Behin-behineko pertsonala.
- Pertsonal guztiaren ordainsari aldakorrak: aparteko orduak, jaiegunak, goardiak, gauekotasuna.

Beraz, Programak ez ditu bere barnean dauden ekintzetan parte hartzen duen pertsonalaren gastu guztiak jasotzen.

Programak teorikoki jaso beharko lituzkeen pertsonal-gastu guztiak jasotzen dituela egiaztatzen saiatu gara, eta egindako gastua plantila eta aurten jasandako aldaketetan oinarrituz guk egindako kalkulua baino txikiagoa dela aurkitu dugu, 19,8 milioi pezetako diferentzia batekin, nagusiki pertsonala programei egoztean egindako errakuntzak direla eta.

V.2.3. Institutuaren eskumenak pertsonalaren kudeaketan.

Institutuak pertsonal laboral finkoaren eta aldi batekoaren nomina eta gizarte-aseguruak egiten ditu, eta pertsonal horren espedienteak ere bai.

Hala pertsonal funtzionarioaren nominak nola honi dagokion Gizarte Segurantzaren likidazioak Lehendakaritzatik egiten dira.

Institututik pertsonal guztiaren (funtzionario zein laboral) denborazko nomina-elementuak ere izapidetu eta sistemara sartzen dira.

Nominak eta gizarte segurantzaren likidazioa nomina-programa informatiko baten bidez egiten da, eta hemendik pasatzen dira kontabilitate-sistemara.

V.3. OHIKO GASTUAK ONDASUN ETA ZERBITZUETAN.

Ohiko ondasun- eta zerbitzu-gastuak 58,4 milioi pezetakoa dira, eta hau programako gastu guztiaren %2a da, betetze-portzentaia %94koa delarik.

Kontusail honen gehikuntza joan den urtearekiko (1994 ekitaldia) %4koa izan da, konponketa-kontusailean 2 milioiko gehikuntza batek eta ohiko ondasunen erosketan murrizpen txiki batek eragina.

Azterturiko ekitaldirako gastua osatzen duten kontusail zehatuak hauexek dira:

Kontzeptua	Beteta	Betetze %a
Minusbaliatuen arretarako lokalaren alokairua	3.794.102	100
Eraikinen kontserbazio eta konponketa	6.340.353	91
Ondasun higigarrien kontserbazio eta konponketa	679.023	76
Bulego-materiala	130.334	60
Prensa, aldizkariak eta bestelako argitalpenak	76.085	95
Elikadura	14.863.912	99
Osasun-laguntza	531.871	96
Osasun-materiala	360.193	57
Hornidura bereziak	143.746	42
Komunikazioak	1.148.280	82
Garraio-gastuak	153.493	94
Garbiketa-kontratuak	2.437.668	99
Ura, gasa, elektrizitatea	12.442.737	86
Berogailuak	7.653.308	96
Garbitasuna	4.420.662	99
Jantziak eta oinetakoak	2.093.916	95
Hainbat gastu	1.146.502	99
Gastuak guztira	58.416.185	94

Programari aplikatzen zaizkion ohiko gastuak jarduera zuzenki kudeatzen duten zentroetakoak

dira; hau da, San José Zentroa eta Oinarri Zentroa. Batez ere jabetza publikokoak izanik kudeaketa itundua duten zentroi dagokien gasturen bat ere jasotzen da, bereziki alokairuak eta eraikinen kontserbazio eta konponketa ukitzen dituzten kontusailetan. Ez dira jasotzen bulego orokorreko dagozkien gastuak; hauek Departamentuko Jarraiera Orokorren Programari aplikatzen zaizkio. Gastu hauek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko eraikin osokoak dira, eta programa bakoitzari aplikatu ahal izateko, gastu-egozpen sistema bat erabili beharko litzateke.

Betetze-koadroan ikus dezakegun bezalaxe, kontusailik garrantzitsuenak elikadura eta ura, gasa, elektrizitatea eta berogailuena dira, guztira gastuaren %60a izanik.

Beren garrantzia dela-eta, zentro berekiei dagozkien elikadura-gastuak aztertu ditugu, eta ondorioak honako hauek dira:

- San José Zentroaren elikadura-gastuei dagozkien osoki, Oinarri Zentroan ez baitago zerbitzu hau, eguneko zentro bat denez gero.

- Hornitzaile tradizionalekin kontratatzen da, behinola prezioa, zerbitzua edo bi alderdi horienatik aukeratutakoak, hauek beren kabuz gaurkotasun dituzten prezioetan. Ez zaizkie eskaintzak eskatzen beste hornitzaileei, zerbitzu/prezioaren kalitatea kaskarra jotzen ez den bitartean.

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zentro guztietako erosketak bateratzeko aukera ez da erabiltzen, ezta Nafarroako Osasun Zerbitzuekin ere.

- Eskaera ahoz egiten da, eskatzen duena eta jasotzen duena normalki pertsona ezberdinak direlarik.

- Ez dago biltegia kontrolatzeko sistemarik. Administradoreak kontsumo-kontrol bat egiten du bakarrik, aurreko beste epeko koherentziari dagokiona.

- Ez da nabaritzen gastua hornitzaile zehatz batzuegan gehiegi kontzentratzen denik. Normalki, produktu bakoitza hornitzaile batek edo bik zuzkitzen dute. Salbuespen gisa supermerkatu bat aipa liteke, gastuaren %19arekin, haragirik gehiena, fruitu batzuk eta supermerkatu-produktu guztiez hornitzen duena.

Gaur egun elikagai ez galkor eta garbigaien esleipenak bateratzea azterten ari dira, eta eskaerak idatziz egin daitezkeen urratsak ematen hasi dira, hornitzaileak fakturarekin batera bidal dezan beretzako kopia.

Aipatutako lanaz gain, erosketa-epigrafeko gainontzeko gastuen laginketa bat egin dugu, gastuaren euskarri den dokumentazioa normalki egokia delako ondorioa iritsi garelarik; dena den, ondoko hauei dagozkien hutsegiteak aurkitu ditugu:

- Aurreko ekitaldikoak diren gastuen egozpena.
- Baimen egokirik gabeko erosketak.
- Dokumentu eusle egokirik gabeko konponketa-lanak.

V.4. OHIKO TRANSFERENTZIAK.

Programako gastu-atalik garrantzitsuenak da, 2.664 milioiko gastu batekin eta %96,8ko betetzeportzentziarekin, hau da, programako gastu guztien %87a, eta honela dago xehatua:

	Hasierako Aurrekontua	Aldaketa Garbia	Bateratua	Beteta	Betetako erakina	% guztiaren gain
Elkarteekiko Hitzarmen eta Itunak	1.478.584.000	(41.000.000)	1.437.584.000	1.401.201.281	36.382.719	52,6
Minusbaliatuentzako Bekak	15.000.000	(2.000.000)	13.000.000	8.278.000	4.722.000	0,31
Familia eta Partikularrentzako Laguntzak	73.485.000	0	73.485.000	63.385.282	10.099.718	2,37
LISMI Pentsioak	829.961.000	(95.610.000)	734.351.000	729.508.375	4.842.625	27,38
Beste elkarteentzako Dirulaguntzak	373.850.000	31.000.000	404.850.000	375.750.983	29.099.017	14,10
Besteren Zentruetan Egonaldiak	67.275.000	20.910.000	88.185.000	85.917.031	2.267.769	3,25
Guztira	2.838.155.000	(86.700.000)	2.751.455.000	2.664.040.952	87.514.048	

Jarraian, programako ohiko transferentziak osatzen dituzten kontzeptuetako bakoitzari buruzko ondorioak eta eginiko lana azaltzen joango gara.

V.4.I. Hitzarmenak eta Itunak.

Kontzeptu honetatik 1.401,2 milioi bete dira, alegia, programako ohiko transferentzia guztien

%52,6a.

Jarraian, itun ezberdinen artean gastua nola banatzen den agertzen duen koadro bat erakutsiko dugu, posible izan denean plaza-kopurua, okupazioaren batezbestekoa eta urteko moduluaren batezbestekoa, itunaren data eta itunduriko zentroak xehatuz ere:

Ituna	Milioiak 1995	%a guzt/g.	Itun data	KANPOKOAK			ZENTROA	BARNEKOAK		
				Itunaren araberako plaza kopurua	Erabilitako batezb. kopurua	Urteko Modulua (batezb.)		Itunaren araberako plaza kopurua	Erabilitako batezb. kopurua	Urteko Modulua (batezb.)
Prosna	164,4	11,7	1-08-88	24	-	1.282.957	Sta. M ^a (Burlata)	46	-	3.106.104
Gesna	256,6	18,3	13-12-89	9	9	1.535.348	Infanta Elena (Cordovilla)	70	69,87	4.112.991
Onartu	19,4	1,4	14-02-90	-	-	-	Oncineda, S. M., J. (Monjardín)	-	-	-
Sos Leyre	169,3	12	20-11-89	24	18	1.614.208	Tutera	24	24	3.242.273
Agedna	323,3	23	23-08-91	-	-	-	Psiquiátrico (S. Fco. Javier)	103	102,63	3.438.687
Aspace	200,4	14,3	6-08-86	112	110,98	815.742	Ramón y Cajal - Uxane	34	32,71	1.324.370
Servirecord	267,8	19,1	3-01-95	35	34,63	-	Onartu-ren ordezt	101	74,51	-
Guztira	1.401,2	100		204				378		

a) Lege-esparrua

Gizarte-zerbitzuak martxoaren 30eko 14/83 Foru Legeak arautzen ditu, erantzukizun publiko, zerbitzuen bazterketarik gabeko berdintasun eta unibertsaltasun eta beren plangintza eta kontrolean gizabanako eta gizarte-taldearen partehartzearen printzipioetan oinarrituz.

Aurreragoko legea osatuz, zeinak administrazio publikoei egozten baitzien elkaturiko eta lankidetzako zerbitzu-erakundeekin burututako itun-jardura, urriaren 25eko 20/85 Foru Legea onartu zen, "Gizarte-Zerbitzuen arloko Itunei buruzkoa". Lege honek zentro edo zerbitzuen titular diren irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuekin itunak egiteko baimena ematen die administrazio publikoei, akreditazio-sistema baten baldintzapean.

1988rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/88 Legeak aldaketa sakon bat ekartzen du, gizarte-zerbitzu ematea enpresa-jardueratzat onartuz, eta, beraz, irabaziak lortzera zuzendutako jardueratzat. 1988 baino lehenago izenpeturiko itun bakarria irabazi-asmorik gabeko erakundearen Aspace-rekin izan zen. Beranduagokoak irabazi-asmoa duten enpresek sinatzen dira.

Gizarte-zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko 9/90 Foru Legeak erregelamendu bidez garatzeke dagoen "akreditazio" kontzeptua baimen-teknikarekin ordeztzen du, zentro eta zerbitzu guztiei -hauekin itunik sinatu ala ez- galdagarriak zaizkien kalitatezko gutxieneko parametro batzuk berrezarrituz.

120/92 Foru Dekretuak itunei buruzko 20/85 Foru Legea garatzen du, Aurrekontu Lege honek dakarren aldaketa onartuz, eta gizarte-zerbitzuen ematea enpresa-jardura gisa onartzen du. Ondorioz, zerbitzu publikoen kudeaketaren kontratazioa erregulatzen duen araudia ezartzen du ordezkotzat, itunen legezko diseinua erakunde horretara bideratzen duelarik azken finean.

b) Itunen edukia.

Gizarte-zerbitzuen arloko itunei buruzko 20/85 Legeak xedaturikoaren babesean izenpetu zen Aspace-rekiko ituna (irabazi-asmorik gabeko erakunde); gainerakoak, Servirecord-ekin izenpeturikoa izan ezik, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/88 Legearen arabera, lege honek irabazi-asmoa duten erakundeekin aurretik ezin erregelamendu sortu izan gabe ituntzea baimentzen duelarik; eta, azkenik, itunei buruzko 129/92 Foru Dekretuaren, eta, horren ordezt, zerbitzu publikoen kudeaketaren kontratazio-araudiaren arabera egin da Servirecord-ekin sinaturiko ituna.

Egindako analisitik honakoa ondorioztatzen da:

- Printzipioz, itun guztiek oso eduki antzekoa daukate.
- Servirecord-ekin dagoen itunaren ustiapen-klausulen orria egokitua dago aplikagarri zaion 120/92 Foru Dekretuko 13. artikulua agindutako edukia.
- Gainerako itunek jaso egiten dute arautzen dituen 20/85 Foru Legeko 5. artikulua ezarritako

eduki galdatua, salbuespen batekin: 5.g artikulua, "ebaluazio tekniko eta administratiborako sistematik", zeina, espreski behintzat, ez baita jasotzen haietako batean ere, beren artikuluetako hainbat puntu horretan sar daitezkeen arren.

• Dena den, itunek ezberdintasun esanguratsuak agertzen dituzte:

1. Servirecord-ekin dagoen itunaren edukiak gehiago zehazten ditu obligazioak. Gizarte Zerbitzuen arloko Itunei buruzko Foru Legearen erregelamendu bidezko garapena jadanik bazegoenean esleitu zen itun hori.

2. Aspace-k soilik kudeatzen ditu zentro berekiak itun bidez. Gainontzekoek jabetza publikoko zentroetan jarduten dute.

3. Moduluen kostua ezberdina da itun bakoitzean. Tarifa-gaurkotze indize ezberdin ugari dago, geroago errazten badira ere: Nafarroako KPIa edo Estatukoa. Prosna, Agedna eta Aspace-rekin sinaturiko itunetan ez da plaza-erreserba arautzen.

4. Servirecord-en itunak klausulak ez betetzean oinarrituriko diru-zehapenak aurreikusten ditu. Gainontzekoek, ez.

5. Prosna, Sos Leyre eta Aspace-k itun aurreko plantilen subrogazioa onartzen dute.

6. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ordaindu beharreko modulutik, beste erakunde batzuetatik lortzen dituzten laguntzen zenbatekoa kentzea aurreikusten dute Onartu eta Aspace-rekin egindako itunek. Nafarroako Gobernuaren laguntzen deialdira aurkeztea debekatzen zaio Aspace-ri itunean.

7. Agedna-ren itunean, ezarritakoa baino haundiagoa den urteroko modulu-gaurkotzea baimentzen da, itunpekoak kostu haundiagoak eduki dituela frogatzen baldin badu.

c) Itunen esleipena

Ezindu psikiko eta mentalen San Francisco Javier zentroko kudeaketa-emakiaren Fiskalizatorako eta gizarte-zerbitzuen arloan egindako beste itunekiko konparazio-analisirako Txostenean (Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 18.zk.a, 91-11-27koa), Agedna, Sos Leyre, Prosna eta Gesna-rekin egindako itunen esleipen-prozedura aztertzen du Kontuen Ganbarak.

Txosten horretako ondorio nagusiak hauek dira:

• "Itun" izena duten arren, instalazioen jabea Administrazioa denez gero, zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketarako kontratuak dira; izan

ere, administrazio-jarduketak Kontratuei buruzko Foru Legeak xedatutakoari egokitzen zaizkio.

• Itun batek ere ez du ustiapen-aurreproiekturik.

• Batek ere ez du derrigorrezkoa den txosten juridikorik.

• Legeak eta jurisprudenziak ezarritakoaren aurka, Agednaren itunak gastu haundiagoen kontentsazio-klausula bat dauka.

• Lehiaketa bidez esleitzen dira, Prosna-ren kasuan esleipen-modua agertzen ez bada ere.

• Enpresetatik bakar bat ere ez zegoen inskribatua edo enpresa gisa egiaztatua, eta itundu beharreko instalazioen jabe ere ez ziren. Prosna bakarrik zegoen Gizarte Segurantzaren inskribatua, eta Gesna-k bakarrik zuen nortasun juridikoa proposamen ekonomikoa irekitzeko garaian.

Egindako eta gorago komentaturiko berrikuspenaren ildotik, txosten honetan Servirecord-ekin egindako eta 95-1-3an esleituriko itun berriari jarri dugu arreta, ea 120/92 Foru Dekretua betetzen duen aztertzeko, ondorio hauetara iritsi garelarik:

• Prestaketa-jarduketak: Galdaturiko dokumentu guztiak aurkezten dira. Adibidez: aurreikuspen ekonomikoa, txosten juridikoa, ustiapen-aurreproiektua, ustiapen-klausulen orriak, Nafarroako Gobernuaren nahitaezko erabakia eta espediente onartu eta lehiaketa bidezko esleipen-prozeduraren hasiera agintzen duen ebazpena.

• Esleipen-prozedura: Foru Dekretu arautzailearen eskakizunak errespetatuz egin da esleipena.

d) Fakturazio, ordainketa eta kontabilizazio-prozedurak.

Fakturazio- eta ordainketa-sistema itun bakoitzean dago finkatua. Formula orokorra hau da: "Dagokion lauhilabetekoaren lehenengo egunean (edo aurrekoaren azkenekoan) agertzen den hartutako pertsonen kopuruaren arabera egingo da fakturazioa, lauhilabeteko horretan gertaturiko aldaketak hurrengo lauhilabetekoaren fakturazioan agertuko direlarik".

Ordainketa-formula itunetan ere ezartzen da. Normalki, aurreratutako lauhilabetekoaren arabera ordainduko ditu Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak prestazio ekonomikoak, aurreko lauhilabetekoan emandako kantitateak justifikatu ondoren.

Itun guztiek Administrazioak finkatutako eta modulutik kenduko den tarifa-araubidea aplikatu eta kobratzera behartzen dituzte enpresa esleipendunak.

Fakturazio- eta kontabilizazio-prozedurak berrikusi ondoren, ondoko ondorio hauetara iristen gara:

- Aspace-ri ituna ordaintzean, berezitasun garrantzitsu bat eduki behar da kontuan: jadanik azaldu den bezala, modulua ordaintzeaz gain, 11.300/92 ebazpenaren bidez erabaki zen Aspace-ri 1991z geroztik Hezkuntza Berezirako Institutu Nazionaletik jasotzen ez zituen kopuruak (47,9 milioi 1995ean) ordaintzea, ituneko irizpide berberekin gaurkotuz. Gure iritziak, hau dirulaguntza bat da, dirulaguntza-araudian ezarritako betebeharrak arautu beharko luketena.

- Aspace-rekin eginiko hiruhilabeteroko erregularizazioetan ez dira agertzen erabiltzaileen izenzerrendak hiruhilabetearen zehar gertaturiko alta eta bajekin. Gainera, erregularizazioetan ez dira kontuan hartzen enpresak jasotako tarifak, eta ituneko baldintza-multzoak ez du tratu berezitu hori esplikatzeko.

Gastu hauek "Irabazi asmorik gabeko Erakundeentzako Ohiko Transferentziak"-en barnean dagoen "Elkartekiko Itunak eta Hitzarmenak" lerroari egozten zaizkio.

Orain arte azaldutakotik kargu-lerroaren eze-gokitasuna ondorioztatzen da, zeren, Aspace izan ezik, itundutako gainontzeko erakundeak irabazi-asmoa duten merkataritza-sozietateak baitira.

Gainera, ez da zuzena gastu hau ohiko transferentziatzat jotzea, zeren eta, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen aginduz, Administrazioaren eskumeneko zerbitzu bat da ordaintzen dena, eta, gainera, Administrazioak ere hautatzen ditu onuradunak; hau dela-eta, ohiko gastu deritzogu, ondasun- eta zerbitzu-erosketakoari.

e) Itunen kontrola.

"Gizarte Zerbitzuetako gastu publikoaren kontrolerako sistemak hobetzea" da Gizarte Zerbitzuen alorreko Itunei buruzko 20/85 Legearen irizpide inspiratzaileetako bat.

Ildo honetatik, itunek hiru mekanismo ezartzen dituzte itunduriko jarduera kontrolatzeko:

- Zerbitzu-ematearen baldintza teknikoei dagokienez, derrigorrezko baimenaren sistema, Administrazioak beti beretzat gordetzen duen ikuska-pen-araubidearekin batera.

- Itunen ordainketari dagokionez, itunpeko enpresak nahitaez egin behar du aurreko lauhilabetearen aitorturiko kantitateen justifikazioa, hurrengo lauhilabetearen ordainketa aurreraturako betebeharrak gisa.

- Itunpeko enpresek urtero finantza egoerari eta aurrekontuak bidaltzea.

Aurreko lauhilabetearen gastuen justifikazioa itun guztietan ezarritako obligazio bat da, eta, gure ustez, enpresak eginiko fondo horien aplikazioa justifikatzeko beharra ezartzen du.

Hori horrela ulertuz, ez da ageri enpresek informazio hori eman zutenik 1995eko ekitaldirako, ezta Gizarte Ongizateak ondorioz eskatu egin zutenik ere.

Administrazioak halako kontrolak egin ez duela frogatzen du Prosnarekin sinaturiko itunak. Enpresa honi Gizarte Segurantzak 111,7 milioi eskatu dizkio exekuziozko bidetik (Gizarte Segurantzaren zuzeneko diru-ordainketari buruzko TC1 eta TC2a egiaztatze soilak neurriak garaiz hartzea ahalbidetuko zukeen).

Itunek beraiek administrazioari kontrol-ahalmena emanik ere, kontrolak egiteko garaian Administrazioak agertu duen utzikeria honek eragin ahal izan dio Administrazioak itun guztien porrotari ez antzemateari, neurri zuzentzaileak garaiz hartzeko moduan, behintzat.

Urtero kontabilitate-informazioa eta oroit-idazkiak bidaltzeari dagokionez:

1995ean betebeharrak hori Agednak bakarrik bete delako konstantzia daukagu.

Laburbilduz, frogatua dirudi itunpekoek arlo honetan itunak ez dituztela bete, hala nola Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egindako kontrol eskasa.

1996an eraturako ekonomista-taldea jabeturik dago arazoak eta dagoeneko eman ditu urratsak ildo horretatik.

f) Tarifak eta zor-aitorpena

91-1-8ko akordioak "Zerbitzu Bereki eta itunduak emateagatik tarifak aplikatzeko arauak" ezartzen ditu.

5. artikulua dioenez, "zerbitzu ezberdinentzako tarifak urtero ezarriko dira, kopuru hori izanik erabiltzaileek ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa". 1995erakoak 95-3-9ko Erabakiaren bidez onartzen dira, eta hemen zerbitzu-ematearen tarifen aplikazio-araubidea ezartzen da, honakoak bereiztuz:

12. art.	Eguneko zentroak	Minusbaliatu Psikiko Larri eta Zerebral Sakonak eta beste: %50	<18 urte: garraio- eta janari- tarifaren kostu erreala. >18 urte: %50 - Bere hileroko errenta -Errenta per capita ezkontide edo seme-alabarik balu. 106.600 pta.
13. art.	Egoitzak	Minusbaliatu psikiko arin eta moderatuak Paralitiko zerebralak eta beste	Beste zentrora badoa: %50 - Bere hileroko errenta -Errenta per capita ezkontide eta seme-alabak balitu. 95: 96.700 pta. (erabilera partz.) eta 114.600 (erabilera iraun.)
14. art.	Arreta iraunkorreko zentroak	Minusbaliatu psikiko, larri eta sakonak Paralitiko zerebralak eta beste	<18 urte bere familia-unitateko hileko errenta per capita-ren arabera ezarritako tarifak >18 urte %90a-Bere hileko errentarena -Errenta per capita ezkontide edo seme-alabarik balu. 95: 271.400 pta.
15. art.	Larriki jotako minusbaliatu fisikoentzako arreta-zentroak	Larriki jotako minusbaliatu fisikoak	IZAERA ZIBIL NAFARRA 95: 93.300 Eguneko zentrua: hileko errenta per capita-ren %50a 95: 186.600 Egoitza Hileko errenta per capita-ren %90a IZAERA ZIBIL NAFARRIK GABE Osoki errentaren kostua kontzertuaren arabera

Nolanahi ere, Agindu horretan zehazten denez, "Tarifa osoki ordaintzen ez dutenek zor-aitorpen bat egin beharko dute".

Erabakiko 5. artikulua zera dio: "Urtero, zerbitzu ezberdinetarako tarifak finkatuko dira, eta kopuru hori izango da erabiltzaileek ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa". Eta, 8. artikulua, honakoa: "Dirusarrerarik ez edukitzeagatik arauak xedatutakoari jarraituz tarifak osoki ordaintzen ez dituzten erabiltzaileek zor-aitorpeneko dokumentu bat izenpetu beharko dute, benetan ordaindutakoa eta dagokion tarifan ezarritakoaren arteko diferentziari dagokiona".

Banakako eta familientzako prestazio eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 169/90 Foru Dekretuak, "zentro edo egoitzetako egonaldi kontzentratuetarako zeharkako prestazio ekonomikoak" izenburua duen bere III. kapituluak, zera dio (12. artikulua): "Onuradunak edo legezko ordezkariak sortzen den zorraren aitortze-dokumentu bat sinatu beharko du, zeinaren kobrantza haren ondasunen kargu egingo den, zerbitzuak emateari uzten zaionean edo, hala gertatzen bada, bere heriotzaren ondoren. Zorra aitortzeak ondasun-transmisioa egiteko ezintasuna dakar, zorra kitatzen ez den bitartean".

91-1-8ko Erabakiak, ordea, obligazio zibiletik salbuesten ditu kasu guztietan ondorengoak (beste familia-unitate bat osatzen duten seme-alabak) eta arbasoak, onuradunaren beraren hileko errenta soilik hartzen baita kontuan (kasu askotan deuseza edo laguntza-pentsioa delarik), 18 urtetik beharkeko kasuan izan ezik.

Minusbaliatuaren guraso, seme-alaba eta anai-arrebak ere beren bitartekoaren arabera minusbaliatuaren jana, bizilekua, arropa, osasun-laguntza eta hezkuntza ere ordaintzera zibilki behartuak egoteari 1991-1-8ko Erabakiak jaramonik ez egiteak ez dirudi egokia, ordainketa minusbaliatuaren errentaren portzentaia bateraino murrizten duelarik (askotan, bere patologia dela eta, minusbaliatua ezgaia da edo tutoretza edo guraso-boterepean egoten da).

Gure aburuz, kolektibitateak hartu behar ditu gastu horiek bere gain, baliabide ekonomiko ezagatik pertsona bakar bat ere behar duen laguntzarik gabe ez dadin gera, baina, beti ere, obligazio-dun nagusiak ordeztu gabe.

Halaber, itunaren esleipendun diren enpresek onuradunaren errenta edo errenta per capita eta beronen aldakuntzak zehazteko izan dezaketen balizko zailtasuna aipatu beharra dago, eta hori kobratzea esleipendunak hartutako konpromezua da.

Gogora dezagun, gainera, lauhilabeteroko erregularizazioei dagokienez, enpresek jasotako tarifan berri edukitzeko modu bakarra haiek agertzen dutena izaten dela, egiaztatzen zaila den zenbateko orokor bat suertatzen delarik maiz.

Zor-aitorpena, araudi erregulatuzaileak behin eta berriro galdatutakoa, ez da inoiz egin, eta ordainketa-ezak ez du zerbitzu-ematearen bukaera ekarri ere.

g) Itunen egoera 1995-12-31n

Itunpekoa	Formalizazio data	Amaiera data	Gorabeherak	Gorabeheren data
Prosna	88-08-1	98-08-1	Administrazio-eskuhartzea Iraungiarazpen-espedientea	95eko abuztua 1996
Gesna	89-12-13	99-12-13	Behin-behineko iraungiarazpen-neurriak Ordainketa-etendura	95eko otsaila 1995
Onartu	90-02-14	97-02-14	Elkarren arteko akordiozko iraungiarazpena	92ko abendua
SOS Leyre	89-11-28	99-11-28	Administrazio-eskuhartzea Kontzertuaren iraungiarazpena * 96ko irailean Agedna-ri esleitzen zaio	95eko otsaila 1995
Agedna	91-08-23	2001-8-23		
Aspace	86-08-6	95-12-31	Epea bete du. Beste esleipen bat egin arte luzatua	
Servirecord	95-02-1	2005-02-1	Onartu-ren ordeiz	

Gure iritiz, koadro honetatik itun-sistemaren aplikazio praktikoaren porrota ondorioztatzen da. Hasierako sei itunetatik, lauk problemak izan dituzte eta iraungiarazi behar izan dira. Egun dirauten beste bietatik, bata -Aspace-k, alegiazentro berekiak kudeatzen ditu, bere finantziarioan berezitasun bat daukalarik, erabiltzaile bakoitzeko moduluaz gain, konpentsazio bat hartzen baitu (1995ean 46 milioikoa) gaur egun Nafarroari transferitua dagoen Hezkuntza Berezirako Institutu Nazionaletik jaso ez duen dirulaguntza estaltzeko.

Indarrean dirauen beste itunak ere, Agednakoak, alegia, berezitasun bat dauka bere finantziarioan: ezarritakoa baino altuagoa den moduluaren urteroko gaurkotzea baimentzen du itunaren testuak, beti ere itunpekoak kostu altuagoak frogatzen baldin baditu.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko pertsonalak berak ere itun-sistemaren porrota ondorioztatu bide du, honako hauek izan litezkeelarik zergatiak:

- Esleipendun gehienek ez zuten ez heziketarik, ez esperientziarik eta ezta finantza eta kudeaketarako ahalmunik ere.

- Laguntza-zerbitzuek pertsonal-behar berriak sortzen dituzte. Zaila da zaindu beharreko minusbaliatuen kopuru bat eta laguntza duin eta gainera finantza daitekeen baten arteko oreka-puntua finkatzea.

- Duela gutxi arte, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ez zeukan itun bakoitzaren jarraipena egin zezakeen pertsonal tekniko ekonomikorik.

- Itunak gaizki diseinatuta daude, anbiguoak dira eta ez zegoen aurretiazko esperientziarik bertan oinarritu ahal izateko.

- Enpresen porrota moduluaren kalkulua eta bere gaurkotzetik erator liteke. Modulua KPIan oinarrituz gaurkotzen baldin bada, horren gainetik eginiko edozein soldata-igoerak (alegia, enpresa hauetako gastuko osagai nagusia den horrek) ustiapenaren emaitzak arriskuan jar ditzake.

- Gerta liteke moduluak zerikusirik ez edukitzea laguntzaren kalitatearekin.

Zaila da ongi oinarrituriko iritzi bat osatzea arlo honetan. Datu garrantzitsu bat da kasu bakoitzean esleipenaren oinarri gisa harturiko moduluaren kalkulua. Itunei buruzko legea garatzen duen 120/92 Foru Dekretuak honako hau sartzan du esleipenaren aurretiazko prestakuntza-jarduketan artean: administrazioak ustiapen-aurreproiektu bat egitea. Honek arazo hau argitzea posible egingo luke itunik berrienari, Servirecord-ekin egindakoari, dagokionean.

Hala eta guztiz ere, itunei buruzko 20/85 Foru Legeak, gainontzeko itunak arautzen dituenak, ez du puntu honi buruz ezer xedatzen; honek eta itunen aintzinasunak zaildu egiten dute aipaturiko ikerketa ekonomikoak aurkitzea, inoiz existitu baldin badira, behintzat.

V.4.2. Minusbaliatuentzako bekak.

Arlo honek 8,2 milioiko aurrekontu-betetzea dauka 1995ean, ezinduen beharrak asetzeko helburua duten banakako laguntza zeharkakoei dagokiena. 620/1981 Errege Dekretuak eta berau garatzen duen 1982ko martxoaren 5eko Ministro Aginduak arautzen dituzte laguntza hauek.

Laguntza hauen xedea zera da: pertsona ezin-duei okupazio-arreta zentroetan zainduak izateak sortzen dizkien gastuak arintzea.

1991tik Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatzen ditu, eta pertsona bakoitzari ematen bazaizkio ere, ordaindu minusbaliatuak zainduta dauden zentro terapeutiko edo okupazio-zentroei ordaintzen zaizkie.

Dagoen araudia estatukoa da: Nafarroakok Gizarte Ongizatearen Institutuari egindako transferentzien ondoren, Nafarroako Gobernuak ez du arau bidezko garapenik egin.

1996an onuradun izandako zentroen zerrenda hau da:

	Onuradun kopurua	Zenbatekoa (milaka pezeta)
Etxebidea zentroa	1	77
Ramón y Cajal zentroa (Aspace)	48	4.236
Uxane Zentroa (Aspace)	4	336
Javier de Elcano egoitza	15	1.440
Jesús y María hezkuntza bereziko Zentroa	1	88
Isterria zentroa	26	2.101
Guztira	95	8.278

Arlo honetan eginiko lanean oinarrituz, honako ondorioetara iristen gara:

- 82-3-5eko Ministro Aginduko 34. artikulua bekak berritzeko ezartzen dituen baldintzak ez dira betetzen. Hau da, bekaren luzapena ez du onuradunak eskatzen, ez da egiaztatzen onuradunaren egoera ekonomikoan aldaketarik egon den, ezta zerbitzuaren behararekin segitzen duen ere; telefono bidez eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren benetako kontrolik gabe zentroarekin harremanetan jarri baino ez da egiten, aurreko urteko onuradun-zerrendan egin beharreko alta eta bajak zehazteko.

- Jasotako zenbatekoen artean desberdintasunak daude zentro bakoitzaren arabera, eta desberdintasun hauek ez daude dokumentazio bidez justifikatuta.

- Ez da egiaztatzen ez beken erabilpena ez beren eragina onuradunarengan.

- Beka-mota honen azterketa juridiko bat beharrezkoa da, gaur egun egokia den jakiteko, eta, hala izanik, araudi bat eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatu eta kontrolatzeko prozedurak sortu behar dira.

V.4.3. Familia eta partikularrentzako laguntzak.

Arlo honek 63,3 milioiko aurrekontu-betetzea dauka 1995ean, honako kontzeptu hauetan banatzen dena:

Kontzeptua	Aurrek.-betet. 1995ean (milaka pezeta)	guzt./g. %a
Etxez-etxe arreta Iruñean	26.722	42,2
Aparteko laguntzak	9.521	15
Tratamenduetarako laguntzak	1.371	2,2
Etxez-etxe arreta, gainontzekoa	25.771	40,6
Guztira	63.385	100

Laguntza hauei aplikatu beharreko araudia Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legean oinarritzen da; zehazki, 1990eko ekainaren 28ko 168/90 Foru Dekretuak banakako eta familientzako prestazio eta laguntzak arautzen ditu.

- Iruñea eta gainontzekoaren etxez-etxe laguntza:

Bien artean arlo honetako %82,8a osatzen dute, eta otsailaren 2ko 417/1995 Ebazpenak arautzen ditu. Ebazpen honek laguntza hauetan 1995ean aplikatu beharreko irizpide eta baremoak ezartzen ditu, aipaturiko 168/90 Foru Dekretua garatuz, hirugarren adina eta minusbaliatuentzat amankomuna dena.

Laguntza hauek aztertutakoan, beren kudeaketa eta kontrola araudi aplikagarrira egokituta daudelako ondorioa iritsi gara.

- Aparteko Laguntzak eta tratamendu berezietarako Laguntzak:

Kontzeptuok arloko %17,2a osatzen dute, eta egin dugun lanetik zera ondorioztatzen dugu:

- Ez dago barne-araudirik 168/90 Foru Agindua garatuz; hori dela eta, kasu bakoitzean nolabaiteko diskrezionaltasunez jarduten da. Aparteko Laguntzetan zerrenda bat dago, laguntza jaso dezaketen kontzeptu eta gehieneko mugekin.

- Jaso eta onartu edo bazterturiko eskaeren kopuruaren kontrol estatistikorik ez dago.

V.4.4. LISMI Pentsioak.

Minusbaliatuentzako prestazio sozial eta ekonomikoen Sistema Bereziari buruzko otsailaren 1eko 383/84 Errege Dekretuak arautzen ditu, eta 1984ko martxoaren 13ko Ministro Aginduak garatzen du dekretu hori. 729,5 milioiko gastua du 1995ean.

Beranduago, abenduaren 20ko 26/90 Legeak, bere bederatzigarren xedapen gehigarrian, Errege Dekretuak aurreikusitako hiru dirulaguntzetatik bi deusezten ditu, indarrean sartu aurretik aitortua daukatenentzat kobratzeko eskubidea mantentzen duen arren.

Prestazio ekonomikoak hauek dira:

		Pta./hilabete	Pta./urte
(SGIM)	Gutxieneko dirusarrerak bermatzeko dirulaguntza	24.935	349.090
(SATP)	Hirugarren pertsonak laguntzeagatik dirulaguntza	9.725	136.150
(SMGT)	Mugikortasun eta garraio-gasturako dirulaguntza	5.495	65.940

Hiru dirulaguntzak bateragarriak dira euren artean, baina bateraezinak antzeko izaera eta helburua eta zenbateko bera edo altuagoko edozein prestaziorekin. Zenbateko baxuagokoa baldin bada, kopuru berean murriztuko da dirulaguntza.

Laguntza hauen kudeaketa 1990eko abenduaren 28ko Errege Dekretu bidez transferitu zitzaion Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari.

1995ean, gastua 729,5 milioiraino igo da, esan dugun bezala, onuradun-kopurua jaitxi egin delarik urtarrileko 2.225 onuradunetatik abenduko 1.933etara. Laguntza-moten arabera, gastu osoa honela banatzen da:

SGIM	627 milioi	%86
SATP	95 milioi	%13
SMGT	7 milioi	%1

Arlo honetan eginiko berrikuspenetik abiatuz, honako ondorioetara heltzen gara:

- Onuradunak laguntzaren zio izan ziren baldintzak betetzen segitzen duela eta bizirik dirauela ziurtatzeko ez da aldizkako egiaztaketarik egin.

- Ordaindu beharreko atzerapenei dagokionez, zenbait kalkulu-akats detektatu ditugu gure berrikuspenean. Gainera, kobratu beharreko kopurua jaitxi izanagatik okerreko suertatu eta berandu detektatu diren ordainketak itzultzea ez da eskatzen.

- GEDESA enpresari kobrantza-kudeaketaren ardura esleitu zitzaion okerreko hainbat ordainketaren gain -21,5 milioikoak 1995ean-; hala ere, ez dago hauei buruzko aldizkako informaziorik, eta gaur egun laguntza hauen kudeaketaren ardura-dunek ez dakite zeintzuk diren kobrantza-kudeaketan enpresa honen eskuetan dauden okerreko ordainketen ondoriozko zorrak.

V.4.5. Beste elkarteentzako dirulaguntzak.

Beste elkarteentzako dirulaguntzek 375,7 milioiko gastua osatzen dute, hau da, ohiko transferentzien ondoriozko gastu guztien % 14,1a.

Erakunde onuradunen eta 1995eko beren zenbatekoen zerrenda honakoa da:

	Milaka pezeta
Tasubinsa	265.428
Anfas	31.476
Aspace	4.042
Alcer	1.060
Amimet	4.325
Berdintasuna	2.121
Coordinadora Disminuídos físicos Navarra	8.462
Anasaps	34.580
Asociación Navarra Hemofilia	776
Asociación padres niños oncológicos	1.148
Asociación padres niños Down	382
Residencia Javier (Elcano)	3.008
Asociación sordos Navarra	8.165
Asociación Navarra de laringectomizados	917
Fundación Psicoballet Maite León	5.638
Ayuntamiento de Leitza	1.384
Niños espina bífida	763
Asociación parapléjicos	1.076
Asociación retinosis pigmentaria	500
Asociación Daño cerebral	500
Guztira	375.751

1990eko martxoko 94/92 Foru Dekretuak gizarte-zerbitzuen arloko dirulaguntzen eraentzaren marku orokorra ezartzen du, garapen-ahalmenak Gizarte Ongizate Kontseilariari egotziz eta funtzionamendu, ekipamendu txiki eta jarduerasustapenerako dirulaguntzen ebazpena organismo autonomoko Zuzendari Kudeatzaileari.

Aurreko Foru Dekretua aplikatuz, gizarte-zerbitzuen arloan funtzionamendu, ekipamendu txiki eta jarduerasustapenerako dirulaguntzen deialdiaren oinarriak onartzen dituen apirilaren 2ko 134/92 Foru Agindua eman zuen Gizarte Ongizateko Kontseilariak.

Arlo honetan egindako lanetik abiatuz, ondorioak hauek dira:

- Edukiari dagokionez, dirulaguntza-eskaerarako espedienteak deialdiari buruzko aipaturiko foru-aginduko 5. artikularekin bat datoz, forma-

berezitasunen bat edo besterekin okupaziozko enplegu-zentroetako kudeatzaile diren sozietate anonimo edo erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan.

- Eskaera-espeditenteen balorazio-judiziorik ez dago zentzu hertsian, eta horientzat guztientzat aurreko ekitaldiko dirulaguntzaren gaineko %5eko gehikuntza proposatzen da. Dirulaguntza-proposamena atzerapen nabarmenez egin da (1995eko iraila), eta data honetara arte aurreko ekitaldiko laguntza-banaketan oinarrituriko konturako kopuruak eman izan dira aurrez. Bitarte horretan finantza-ziurgabetasun egoerak gertatu ahal izan litezke jasotako dirulaguntzen menpean, gehienbat, dauden erakunde eskatzaileetan, kontuan edukiz, gainera, beren jarduerak burutu ahal izateko eskaturiko kopuruak eta benetan jasotakoen arteko aldea.

- Aipaturiko foru-aginduko 8. artikulua ez da bete, aztergai den 1995eko ekitaldian ez baita eskatu egindako gastuen dokumentu bidezko justifikaziorik.

- Tasubinsari emandako dirulaguntzak kasu berezia dira: enpresa eta administrazioaren artean 1989an egindako akordio batean oinarrituz, enpresako okupazio-lantegietan okupaturiko minusbaliatu eta urte bakoitzeko, urteroko modulu bat aplikatuz ematen da dirulaguntza. Sozietateak bidalitako pertsona okupatuaren hilabeteroko zerrendei modulua aplikatuz zehazten da dirulaguntza. Zerrenda hauen gain ez du inolako kontrolik egiten Gizarte Ongizate Departamentuak.

V.4.6. Egonaldia besteren zentroetan.

Zera jasotzen da hemen: Nafarroatik kanpo kokaturiko zentroetan horren beharra duten eta Nafarroan plazarik ez duten egoiliarak sar ahal izan daitezten Gizarte Ongizate Departamentuak egiten duen finantzaketa, 85,9 milioiko kostua duena.

Laguntza pertsonal bat da, minusbaliatuaren edo bere familiaren aldekoa, eta zera finantzatzen du: Nafarroan zentro bereki edo Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin itunduriko batean ordainduko lukeen kopurua (bere hileroko errenta berekiaren % 90a edo errenta per capita-rena, ezkontide edo beste unitate familiar batekoak ez diren seme-alabak izango balitu) eta eramaten duteneko zentroak kobratzen duen kopuruaren arteko diferentzia.

Gainontzeko laguntzak bezalaxe, 168/90 Foru Dekretuak xedatutakoari jarraituz ematen dira.

1995ean zehar 71 onuradun egon dira, 126.384 pezetako batezbesteko kostu batekin.

Egindako lanaren arabera, aipaturiko dekretuko baldintzak bete egiten dituzte espeditenteek.

V.5. INBERTSIO ERREALAK.

Inbertsioen zenbatekoa (10,9 milioi pezeta) 1995ean programako gastu osoaren %0,4a izan da.

Betetze-portzentaia %94koa izan da.

Kontusail honetan zentro bereki eta itunduen egokitze eta ekipatzerako inbertsioak sartzen dira. Zentroka, honela banatu da inbertsio osoa:

	Milaka pezeta
San José	388,6
Las Torchas	8.701,2
Erronkari ibarrekoa	1.889,6
Guztira	10.979,4

Bi espeditentez osaturiko lagin bat hartu dugu ea zuzenbideari egokitzen zaizkion eta arrazoizkoak diren egiaztatzeko.

Bi espeditenteak "Las Torchas" zentroari buruzkoak dira, eta paraleloak dira, hala denboran nola jarduketetan. Batak sukaldearen altzari-horniketa eta instalazioaz dihardu, eta besteak altzariak eta bestelako tresneriaren horniketa eta instalazioaz.

Bi espeditenteak zuzen burutu dira, honako salbuespen hauekin:

- KFLko 44. artikulua emandako 30 eguneko epemugatik kanpo formalizatu dira kontratuak.

- Ez dago behin-behineko harrera aktarik; beraz, entregarako epea bete den egiaztatzerik ez dago; fakturen daten arabera, ez dirudi bete denik.

- Ezin da zehaztu bermealdia noiz hasi eta bukatzen den.

- Esleipenerako irizpiderik garrantzitsuena entrega-epea dela aipatu beharra dago. Espeditenteetako dokumentuen data ikusirik, espeditenteak asko luzatu dira denboran zehar; hau dela-eta, etorkizunean irizpide hau kontuan hartu beharko litzateke.

Inbertsioen arloan egindako gastu-egozpenari dagokionez, linea batean edo bestean inbertsioak aplikatzeko irizpide bateraturik ez dagoela ikusten dugu. Bestalde, azterturiko programak jasotzen duen zenbatekoa ez da benetan bete dena, eraikinak egiteko inbertsioak Departamentuko Zuzendaritza Orokorretik kudeatu eta Zuzendaritza Orokorreko programa bati egozten baitzaizkio.

Beraz, minusbaliatuen zentro berekietan egini-ko inbertsioen zenbateko osoa hauxe litzateke:

L-31100 Betetzea 923 Programa	10.979.418
L-99002 Betetzea 910 Programa	238.535.434
Guztira	249.514.852

V.6. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK.

Gizarte Ongizate Kontseilariaren Foru Aginduz, minusbaliatuentzako ibilgailuak erosi eta moldatzeko dirulaguntzen deialdiko oinarriak onartzen dira.

1995 ekitaldirako oinarriak urtarrilaren 31ko 97/95 Foru Aginduak onartzen ditu, eta bi laguntza-mota ezartzen dira:

- Ibilgailu partikularrak erosi eta/edo moldatzeko.
- Erabilera kolektiboko ibilgailuak erosi eta/edo moldatzeko, ezinduak bertan sar ahal izan daitezten.

1995ean kontzeptu honetan egindako gastua 25,3 milioikoa izan da, eta espedienteak aztertu ondoren zera ondorioztatzen dugu: emateko prozedura, irizpide eta baldintzak ezartzen dituen aipaturiko Foru Aginduaren arabera egin eta eman direla berauek.

V.7. TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRE-RAK.

Programa honetako dirusarrerak, 54,6 milioi, San José Zentroko egoiliarren zerbitzu-prestazioaren ondoriozko tarifetatik jasotzen dira eskusiboki.

Gizarte Ongizatearen Zerbitzu Erregionalaren 1991ko urtarrilaren 5eko bi erabakik, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren 1995eko martxoaren 9ko erabakiak gaurkoturikoak, arautzen dituzte tarifak.

Akordio hauen arabera, San José Zentroa bezalako minusbaliatu psikiko larri eta sakonen etengabeko arretarako zentroetan 18 urtetik gorakoentzako tarifa hilabeteko 224.000 pezeta da 95-6-1a arte, eta hilabeteko 271.400 pezeta data horretatik aurrera. Erabiltzaileek ordaintzen duten benetako kopurua, ordea, beren hileroko errentaren %90a da.

Aplikagarri den araudiaren arabera, dirusarrea-ezagatik tarifak osoki ordaintzen ez dituzten erabiltzaileek benetan ordaindurikoa eta dagokion tarifak ezarritakoaren arteko diferentziaren zenba-

tekoa duen zor-aitormen dokumentu bat sinatu beharko dute.

Zentroko egoiliar batek ere ez du tarifa osoa ordaintzen; hala ere, ezein kasutan ez da egin arauak aurreikusitako zor-aitormen hori.

Zentroak berak izapidetzen ditu zuzenean dirusarrerak, likidazioak eta ordainagiri-jaulkipena, eta kontabilizazioa bulego orokorretan egiten da. Halaber, ordaingabeen kontrola zentroak berak egiten du bulego orokorretatik jasotzen duen kobrantzei buruzko informazioaren bitartez.

Dirusarrera-arlo honetan egin dugun azterketan oinarrituz, honako ondorio hauetara heltzen gara:

- Dirusarreraren kontrolean parte hartzen duten bi unitateen artean ez dago koordinazio egokirik: Kontabilitateari zentroak ez dizkio sistematikoki jakinarazten egiten dituen likidazio guztiak, eta Kontabilitateak gauza bera egiten du kobrantza eta ordaindu gabeko ordainagiriekin.

- Onuradunen hileroko errentaren zehaztapena hauek Gizarte Segurantzako organismoetatik har litzaketan pentsioetara mugatzen da, ondarezko dirusarrera posibleak determinatzeko zailtasuna dela-eta.

- Gizarte Segurantzako organismoek emandako laguntza eta pentsioei buruzko informazio zuzena daukaten edo kudeatzen duten Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko beste zentrokekin ez dago koordinaziorik. Errenta hauei buruzko informazioa interesatuaren hitzezko komunikazio, Administradorearen presuntzio, inoiz dokumentazio eta abarren bidez lortzen da.

- Ez da existitzen egoiliar bakoitzaren espediente bat jasotako errentak eta hauen aldakuntzak dokumentatuz, eta ez da galdatzen balizko errentak justifikatzeko dokumenturik aldizka edo, behintzat, onuradunaren egoera juridiko-administratiboa aldatzen denean aurkeztea.

- Zentroko administradoreak egiten duen kuoten likidazioa, eta ez du beste ezein organok berrikusi edo onesten. Kontuhartzaileak ere ez du ikuskatzen. Gauza bera gertatzen da aldakuntza eta erreklamazioekin.

- Ordaindu gabeko ordainagiriak kontrolatzeko prozedura zuzenik ez dago. Zentro kudeatzailean kobrantza eta itzulketei buruzko informazio sistematikoa falta da. Jaulkitako ordainagiri eta deusezte eta aldaketa posibleei buruzko informazio oso bat falta da kontabilitate-zentroan. Gainera, erabilitako kontabilitate-sistemak ez du zorrak kontrolatzea ahalbidetzen.

- Kobrantza gehienak banku-kontu "zubi" bate-ra doaz, partzialki eta kopuru garbian kontu orokorrera pasatuak izan aurretik. Honek dirusarreraren kontabilitate-kontrol egokia zaildu egiten du. Dirusarrerak ez dira sisteman erregistratzen intsuldaketa egin arte.

Banku-kontu "zubi" hau ez da likidatzen ekitaldiaren bukaeran, eta ez da Gobernuaren kontuen barruan erregistratzen. Gobernuak ez du banku-kontu "zubi" hau kontrolatzen.

VI. PROGRAMAREN ERAGINKORTASUNAREN ANALISIA.

1995eko aurrekontuan, txosteneko I atalean agertu bezala, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak programaren helburuak eta adierazle-multzo bat aurkeztu ditu. Adierazle hauek ezinbestekoak dira erdietsi nahi diren helburuak zeintzuk diren eta zein neurritan lortu diren jakin ahal izateko eta horrela programaren eraginkortasuna baloratu ahal izateko aurrekontugintza egoki baterako.

Hala ere, nahikoa da horiek arretaz irakurtzea helburuak definituta ez daudela ondorioztatzeko: benetan, asmo orokorren deklarazio bat da: "gizarte-ekintzaren hobekuntza", "gizarte-normalizazio eta integrazioa", "elkarte-mugimenduaren sustapena". Helburu hauek ez daude koantifikatuta, eta ez dute zerikusirik programako aurrekontu-kredituekin.

Laguntza-izaerako helburuak finkatzea zaila dela aitortzen badugu ere, eransten diren adierazleek ez dute lotura zuzenik helburuekin, eta eskatu eta emandako laguntza-kopuruaren arabera kudeaketa administratiboa koantifikatzera eta zentro bakoitzean itunduriko plaza-kopuruaren zerrenda bat egitera mugatzen dira.

Bestalde, ekitaldian zehar helburuak eta adierazleak bete diren ikusteko ez da aurrekontu-betetzearen jarraipen berezirik egiten, eta ez da ekitaldiaren amaieran horiek analizatuko dituen txosten edo memoriarik prestatzen ere.

Helburu eta adierazle egokiak ez edukitzeak programaren eraginkortasun-maila orokorrari buruzko iritzia ematea galerazten digu. Hala eta guztiz ere, programaren arlo ezberdinetan egindako lanean oinarrituriko ondorio-multzo bat zerrendatzen dugu jarraian, bere kudeaketan eragin zuzena edo zeharkakoa dutenak, eta, dagoeneko aipatu dugun helburu eta adierazle egokien gabeziarekin batera, programaren eraginkortasuna baloratzea zaildu egiten dutenak.

- Gobernu-aldaketen ondorioz gertatzen den pertsonalaren gehiegizko mugikortasuna, zeinak ez baititu programaren arduradun nagusiak bakarrik ukitzen, eta programaren kudeaketa, eraginkortasunean eragina duena. Hau honako puntuetan jartzen da agerian:

1. Programako ekintza ezberdinei buruzko informazioa lortzeko zailtasuna.

2. Espedienteen egoera kaskarra, pertsona ezberdinek maneiatzen dituztelako.

3. Programako hainbat ekintzaren arau bidezko garapen eskasa eta emandako dirulaguntzen kontrol orokor akastun bat.

4. Normalizaturiko informazio-sistema batzuk eta administrazio-jarduketan protokolarizazio egoki baten eza.

5. Itunen egungo egoera, gertatu aurretik detektatua izan ahal izango zena jarraipen eta kontrol eraginkorrago bat egon izan balitz, honela soluzioak aurkitzea posible izango zelarik.

- Gainera, programa ez dago osatua, ez baititu jasotzen dagozkion pertsonal-gastu guztiak, V.2. atalean ikusi dugun bezala. Eraikinak egiteko inbertsioak ere ez ditu jasotzen, V.5. atalean ikusi dugun bezala.

Aipaturiko gastuak Zuzendaritza Orokorreko programa bati egozten zaizkio; hori dela eta, programa honek ez ditu jasotzen egozgarri zaizkion gastu guztiak.

Horrela bada, Institutuak, organismo autonomo denez gero, bere zentroetako pertsonal eta inbertsioen kudeaketa-ardura bere gain har dezala komenigarri jotzen dugu.

Azalduriko ondorioen arabera, minusbaliatuen programa birplanteatzea beharrezkoa da, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren kudeaketa-talde berria jabetzen da egoera honetaz. Birplanteatze hori honela gauzatu beharko litzateke:

- Programa era egoki batean burutzeko giltzari diren hainbat lanposturen kudeaketa profesionalizatuz, aldaketa politikoetatik at utziz.

- Araudi berri bat eginez, argia eta laburra, programako laguntzak eta balizko iruzurrak ekiditeko beharrezko diren kontrolak arautuko dituen, baliabide ekonomikoak dituzten erabiltzaileek beren gastuak ordain ditzaten, injustizia-egoerak saihesteko.

- Itunei buruzko problematika aztertuz eta baldintza-sorta normalizatuak prestatuz. Baldintza-sorta hauek hala onuradun nola Institutuarentzat

onargarria izango den kostu bat edukiko duen laguntza-kalitate egokia bermatu beharko dute.

- Benetako minusbaliatu-programa bat eginez, honako hau jasoko duena: egotz dakizkiokeen kostu guztiak, epe ertain eta luzerako helburuak eta ezarritako helburuen lortzea aldizka aztertzea ahalbidetuko duten adierazleak. Datu hauek modu argi eta laburrean aurkeztu beharko lirarteke urteroko memoria batean.

Azkenik, komenigarri deritzogu programaren helburuen artean problema jakin batzuentzako soluzioa jasotzeari, gizarteak eskatzen duen bezala. Adibidez:

- Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren artean koordinaio haundiagoa, osasun-paziente izatetik minusbaliatutzat joa izatera pasatzen diren pertsona guztiei jarraitasun-etenik gabe informazioa eman, aholkatu eta lagunduko zaiela ziurtatuko duena. Pertsona hauek berehalako arreta behar dute aztergai dugun programa honek emandako zerbitzuetan.

- Oztopo fisiko eta sentorialeiei buruzko Foru Legea aplikatuz, oztopo arkitektonikoen ezabaketa irmoki praktikan jartzea, honela bide publikoan zein eraikin publiko eta pribatuetan minusbaliatasunak dituzten pertsonen mugikortasuna erraztuz.

- Minusbaliatuen gizarteratzeari laguntzea, bere langabezia-zifrak populazio normalaren hirukoitza baino altuagoak dituen kolektibo bat lan-merkatuan sartzearen alde ekinez.

Iruñea, 1997ko apirilaren 30a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

ERANSKINA. NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUKO ZUZENDARIKUDEATZAILEAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

SARRERA.

Txosten honen helburua zera da: 1995erako Minusbaliatuentzako Programaren betetzeari buruz Kontuen Ganbarak 1997ko martxoan kaleratu zuen txostenari Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuaren egungo Talde Zuzendariaren ikuspegia gehitzea.

Kontuen Ganbarako teknikariei txostena prestatzeak eskatu dien ahalegin handia begirunez aitortuz, eta bertako analisi eta planteamenduekin funtsean ados gaudela azalduz, txostenean bertan jadanik aipaturik dauden zenbait alderdi jasota geratzea nahi izango genuke.

Lehendabizi, Gizarte Zerbitzuak aski berriki eratu direla gogorazi nahi genuke (Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea 1983koa da), eta beren bilakaera azkarra eta sendoa izan da.

Ez Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren egiturak, ez Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten eta duela urte gutxi arte irabazi-asmorik ez zuten Erakundeenak ere, ez zeukaten baliabideak behar bezala kudeatu ahal izateko beharrezko den giza-baliabide edo baliabide teknikorik. Zentzu honetan, 1996. urterarte Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuaren plantilan "Ekonomista"rik ez zela existitzen esan besterik ez dugu egingo.

Gauza bera esan genezake aski berria den eta etengabeko aldaketan dagoen arlo baten araubidezko garapenari buruz. Kasu askotan, Legeak, Dekretuak, Aginduak eta abar zailak gertatu dira interpretatzen, eta beste kasu batzuetan araudi berezirik ez egoteak izaera orokorreko legeetara jotzera behartu izan ditu teknikoak, "Kontratuei buruzko Legea" kasu, zeina Gizarte Zerbitzuen ematea arautzeko pentsatua ez zela izan nabaria baita.

Giza- eta teknika-baliabideen gabeziari arau-ezegokitasuna eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko egituraren ezegonkortasun iraunkorra gehitzen baldin badizkiogu, Kontuen Ganbarak detektaturiko akats eta irregulartasunak gerta daitezela ulertzen ez da zaila.

Hala ere, egun Organismo Autonomo honetan gogor ari gara lanean, profesional guztien lankidetzarekin, akats hauek guztiak zuzentzen, eta Kontuen Ganbararen 1995eko txostenak dituen gomendioetako batzuk gaur egun, 1997ko apirilean, jadanik bete direla edo ekitaldi honetarako helburuen artean agertzen direla esan dezakegu.

Zenbait alderdi azpimarratu nahi genituzke, Kontuen Ganbararen txosteneko aurkibideari jarraituz. Honakoak dira:

IV.4.1. Itunak eta hitzarmenak hainbat Elkarterekin.

Gaur egun, minusbaliatuen arloko itunek behar bezalako kontrola eta kalitatea bermatzen duten baldintza-sorta tekniko, juridiko eta ekonomikoak dituzte.

Halaber, horien jarraipena egiten duten ekonomista eta legetariz osaturiko talde bat dauka Institutuak.

IV.4.2. Minusbaliatuentzako bekak.

Izaera terapeutiko edo okupazionalako zentroetan zainduriko gutxitu fisiko, psikiko edo sentorialeiei zuzenduriko banakako laguntzak dira.

Estatuko araudiak erregulatzen ditu, Nafarroako Foru Komunitateari eginiko transferentzien ondoren ez baita bertako araudirik sortu.

Azken urteotan honi buruzko neurriak hartzeko beharra sistematikoki mahaigaineratu izan da; horregatik, 1997ko otsailean kontzeptu hau ezabatzea proposatzen da, laguntzak ematean ikusi diren zehazgabetasun eta bikoiztasunak direla-eta. Kontuan eduki behar da, baita ere, laguntza horiek jasotzen dituzten zentroek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin ituna dutela, edo erakundeen funtzionamendurako dirulaguntzak jasotzen dituztela.

Beharrezkoa da "beka" kontzeptua aipatu ditugun beste figuren baitan ("ituna", "dirulaguntza") gera dadila.

IV.4.3. Familia partikularrentzako laguntzak.

Bai aparteko laguntzetan, bai espezializatuetan, laguntzak jasoko dituzten kontzeptuak, berauen gehieneko kostua eta aplikatu beharreko baremo ekonomikoa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Zuzendari Kudeatzailearen ebazpen baten bidez ezarri dira.

IV.4.4. LISMI pentsioak.

Pertsona minusbaliatuak gizarteratzeko banakako laguntzak lau kontzepturen arabera ematen dira:

- Gutxieneko dirusarrerak bermatzeko dirulaguntza.
- Mugikortasun eta garraio-gastuetarako dirulaguntza.
- Hirugarren pertsonarentzako dirulaguntza.
- Osasun- eta farmazia- prestaziorako dirulaguntza.

Horiek jasotzeko eskubidea edukitzeko bete behar diren baldintzak ezartzen dituen estatuko araudi bidez erregulatzen dira. 1996az geroztik, emandakoak urtero berrikusten dira, baldintzak dokumenta daitezela galdatuz, laguntzak arautzen dituen Errege Dekretuaren arabera, honela bidegabeki jaso ditzatela ekiditen delarik.

IV.4.5. Beste hainbat elkarterentzako dirulaguntzak.

Gaur egun, elkarrekin eginiko gastuen dokumentu bidezko justifikazioa galdatzen da jadanik, eta espedienteen balorazioa egiten da, dirulaguntzak ematerakoan erabakigarria delarik.

Tasubinsa-ri dagokionez, itun-prozedura ezartzearen egokitasunari buruzko azterketa-prozesu bat burutzen ari da.

IV.7. Tasak eta bestelako dirusarrerak.

Besteak beste errentak gaurkotzea ahalbidetuko duen espediente bat egin da San José Zentroko egoiliar bakoitzeko.

Une honetan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan tarifa-araudi berri bat lantzen ari gara, ukituriko instantzia guztiekin adosturik (familia eta erabiltzaileen elkarrekin), zerbitzu bakoitzari egokitutako prezio publiko batzuk ezartzeaz gain prozedura azkar eta argi bat bermatzeko duena.

IV.8. Eraginkortasunaren analisia.

Puntu honetako gomendioei dagokionez, une honetan "Gutxituen Arloaren Berrantolaketa" deitzen dugun prozesu bat burutzen ari dela esan behar dugu, zenbait eremutan lan egitera beharitzen duena:

1- Gure komunitateko gutxituen errealitatea ezagutzeko (gaurkoturiko errolda).

- Ezintasun--opurua eta mota.
- Ukipen-maila.
- Behar dituen baliabideak.

2- Laguntza-baliabideak egokitzea.

• Zentro batzuk eraldatzea eta beste eredu batzuk sortzea.

• Lan- eta okupazio-jarduera bereziki azpimarratzea.

3- Arau-egokitzapena.

Barne-izaerako arau-garapen bat abian jarri da, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak minusbaliotasunen arloan ematen dituen prestazioak behar bezala aplikatzeko beharrezkotzat jotzen delako.

Halaber, hainbat prestazio erregulatzen dituen araudia (Foru Agindua, Foru Dekretua) berrikusteko prozesu bati ekin zaio, beharrezko diren aldaketak proposatuz. Pertsona minusbaliatuentzako ibilgailuak erosi eta/edo moldatzeko laguntzen deialdirako proposamena egina dago jadanik.

4- Espezializazio profesionala.

Gutxituen Atalaren barruan jarduten duen pertsonal teknikoak minusbaliotasun-mota ezberdinetan (fisikoak, psikikoak eta sentsorialak) eta baliabide eta prestazio ezberdinetan espezializatzen ari da. Espezializatzeko kezka hau Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren egitura berrian isladatzen da, Atalaren barruan bi bulego sortu baititu, bata minusbaliotasun fisiko eta sentsorialen arloaz arduratuz eta bestea minusbaliotasun psikikoenaz.

5- Gizarte- eta osasun-espazioaren finkapena.

Une honetan Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan gizarte- eta osasun- espazioa definitu eta koantifikatzen lanean dihardugu. Honako hau hartzen dugu halakotzat: bi departamentuen eskumenen elkargune-espazioa. Maila ezberdinetan kontaktuak edukitzen ari gara Osasun Departamentuko arduradunekin, eskumenak eta finantziazio-sistemak elkarrekin mugatzeko.

6- Arkitektura-oztopoak.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bere gain hartzen ditu banakakoentzako mugikor-tasunerako laguntzak, eta zenbait kasutan, erabilerak kolektiboko ibilgailuen moldaketa kasu, baita erakunde edo enpresa pribatuentzakoak ere. Hala

ere, oztopo fisikoei buruzko Foru Legearen aplikazioan, Nafarroako Gobernuko beste Departamentu batzuren eta Udal Administrazioaren arduraren hainbat jarduketak dago; hau dela-eta, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Zuzendaritza Nagusiak berak ezarri beharko ditu beharrezko diren babes- eta laguntza- mekanismoak.

Halaber, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua konpromezuak hartzen doa arkitektura-oztopoen ezabaketaren aldeko proiektu edo jardueretan, "Horizón III" Komunitate Ekimenean aurkezturiko "Turismoa guztiontzat" Proiektuan kasu.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Zuzendari Kudeatzailea: José María Jiménez Bolea

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---